

Bost urte eta gero, agur 'Kultur Bideetan'

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko urtarrilak 22

177. zenb.

HIES-Ekimena
**Urteko
balantzea
eta asmoak**

Arrisku soldata' programa

Etorkizunerako lau enpresa

Karlos Oianguren, bitxigilea

Enuzketa (Gesalibar 25 urte ezker; aurretik Garagartza)

Aspaldiko papeletan (1.353en) agerketan da paraje hau bizileku moduen.

Etxetik gertu dauen Santixa lekuen ermita bat egon zan, Santiagon adokaziñue. Bertan enterramentuek be eñ zien. Ermittie desagertu eta gero, santuek Enuzketa basarrire eruen zittuen eta oin 41 urte etxie erre zanien galdu zien. Ermita hontako kanpaie gaur egungo Garagartzako aingeru kanpaie da.

Gaur ikusten doun etxie lehenguen zimentu gainetan jasota dau. Aurretik bi bizitzakue zan. Lehengo etxe honen ugazaba Conde del Sella zan eta honen aurretik Marqués de Canalena izenda euen; 43 urte diela erosi euen.

Oin bertan bizi dienak



Rafael Unamuno Sologaistoa 86 urtekue, bere andrie Florentzia Pagaldai 83kue, euren semie Juan Mari, errana Maria Teresa eta bi ilobak Naiara eta Maitane die. Rafael da bertako semie, aitte bergarra

euken, ama Enuzketakue.

Rafael bere denboran harotz lanetan jardundakue da Bittorixan, Eibarren eta Mundrauen. Basarrixen lan asko eindde dau, bai bere soluetan, bai inonetan be, beste

batzuendako lurrek lanketan ibiltten zan, gehixen be Garagartzako lauetan. Denpora igerle famatue izen da, baine jareinde dau bere esanetan "atmosfera guztiz endredauete dau eta".

BEHERAPENAK!



LORAMENDI KIROLAK



%30 eko beherapena emakume, gizon edo umeen txamarratan!

Baita ere txandal, forropolar eta anoraketan ere.

Maiatzaren 1a plaza (Udalaitz dorrea)
Tfnoa: 79 97 24 ARRASATE

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



A zer nolako zalaparta!

A zer nolako zalaparta atera duen Eliza Katolikoaren Dotrina-liburu berriak!

Nork esan, sekularizazio gizaldi honetan, ideologia eta sinismen guztiak zalantzan eta airean dabiltzan denbora honetan, sinismen konkretu bat adierazi eta aurkeztu nahi duen liburuak, hainbesteko arrakasta izango zuenik.

Harritzekoa, egunkariak, radioiek, aldizkariak eta abar eman dioten lekua. Harritzekoa, ohizko mahai-inguruko hizlarien esan eta kritikatu beharra. Harritzekoa, Vaticanoak berak Dotrina honen azalkundeari eman zion garrantzia, eta liburu honetan jarri dituen itxaropenak.

Nire jakinminak bultzaturik, laster egin nintzen liburuarekin eta irakurtzen hasi.

Amorrúa eman zidaten

azaltzen ari ziren hainbat eta hainbat kritika maltzur, huts eta ezjakinek. Enborra, adarrak eta beste ostoak alde batera utzi, eta banakako osto bat edo beste hartu eta... ala, plazara, prestakuntza handirik erakutsi gabe,

arinki edo zer gauza esan eta jendearen morboari erantzun.

Bestalde, nere beldurrak eta gaur egungo Eliza Ofizialak esnaratzen dizkidan aurreritzi eta prejuizioak baieztatuak aurkitu nituen. Eta ala eta guztiz ere, liburu aberatsa deritxot: dotrina mamitsua eta ugaria aurki daiteke bertan.


Ongi etorria, ba, Dotrina ez hain berri hori. Hitzaurrean gomendatzen den eran, abiapuntu bezala erabiltzen bada, on ugari egin lezake gure gizarteko ilunpe eta noraezean.

Barne-barneko gaiak erabiltzen baititu; eta nahiz zientzien baliakideak eta askatasun itxurak, adoleszenteki liluraturik eduki gure bihotzak, erdi ahazturik, baina bizirik ditugun oinarrizko galderei erantzuten saiatzen baita. Hortik eta horregatik, beharbada, liburu honen arrakasta eta garrantzia.

Izan ere, sustrai gabeko zuhaitzak, nahiz itxura ona izan, ez du etorkizunik. Eta postmodernismoaren oraina hutsak, ez du ez bizitzeko ez burrukarako arrazoirik ematen.

Bere akats eta guzti, gure bihotzetan, argi pixka bat eta itxaropen bizigarria sortzeko gai bada, Ongietorria!!

SAGARRAGA
(JOSE MARI ASTIGARRAGA)




JOSU

TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

Memesa

79 42 22



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40


Leguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Aranburu, Udako Ingarugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba



ZENBAKI
Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

•••••
**Arrasate
erreklamatzeko
eta Gasteizen
mozten**

PNVk Euskal Herria-
rekin orokorrean eta
Arrasaterekin zehazki dara-
bilen jokuarekin gogait
eginda gaude. Engainuaren
hainbat adibide emango di-
tut.

Ez da denbora asko
Arrasateko Udaleko Plenuan
Eusko Jaurlaritzako Hez-
kuntza Sailburuaren, Buesa
Jaunaren dimisioa eskatzen
zuen mozio bat bozkatu zela.
Logikazko irizpideei erant-
zunez, EAJak mozioa baz-
tertu beharra zeukan eta ha-
laxe egin zuen. Baina, hara
non, gure harridurarako, al-
derdi horretako zinegotziren
bat Buesa Jaunaren dimisioa
eskatzeko sinadurak biltzen
kalean ikusi genuen. Serioa
da hori? Pleno Aretoan ka-
learen ordezkari gisa eseri
direla ahaztu egin ote zaie
jaun horiei?

“Union Zerrajeraren”,
gaur egun Corporación
UCEMen barruan dagoena-
ren etorkizuna arrasatear
guztien ahotan dabil. Berriz
ere, PNVko zinegotzi batek
pertsonek izenpetutako
mozio bat aurkeztu du, lau
lerrokoa, lanpostuak man-
tentzea eskatuz. Zer jolas
mota da hori? Zeuek izan
zarete, PNVko jaun andreok,
Eusko Jaurlaritzako zuen
konpondu-ezindako kide
horrekin, PSOErekin batera,
Corporación UCEMi eta 100

lanpostu amortiza ditzan 3R
Planaren barruan 150 milioi
pezeta eman diozuenak;
Corporación UCEMen 100
lanpostu desagertu daitezke
lagundu egin du PNVk.
Hauxe da PNVren estilo ti-
pikoa: Arrasaten erreklama-
tu egingo dut eta Gasteizen
moztu.

Arrasateko PNVko zi-
negotziok, zuen hurrengo
mozioa izan daitekeena
idatziko dizuet:

“Egin Irratia dekretu bi-
dez isteko posibilitatearen
aurrean, Arrasateko Udalak,
Egin Irratia ahalik eta azka-
rren ireki eta baimenak
ahalik eta azkarren bidera-
tzea eskatzen dio Eusko
Jaurlaritzari, “adierazpen
askatasun” eskubidearen
errespeturik zorrotzena lor-
tzeko bidean”.

**Arrasateko EAKo
zinegotzi taldeak**

•••••
**Errege
Kabalgatak
eskerrak
emanez**

Erregeen Kabalgatako
Komisioak eskerrak
ematen dizkie honen bidez
aurtengo Kabalgatako pres-
takuntzan lagundu duten
pertsonek eta erakunde guz-
tietan, eta batez ere honako
hauei: Arrasateko Udala,
Udaltzaingoa, Ertzantza,
Atxa eta Ormaetxea zerrate-
giak, Gorosabel, SUDC, San
Viator Ikastola eta Banco
Guipuzcoano.

ANTOLATZAILEAK

•••••
**Amnistiaren
aldeko Gestorek
eskerronez**

Arrasateko Amnisti-
aren aldeko Batzor-
deak, denda, taberna eta pre-
soentzat laguntza eman du-
ten guztietan, eskerrak eman
nahi dizkie, adieraziz zuen
elkartasunak distantzia guz-
tiak gaindituz gure presoek
Gabonetako berotasuna
iristea lortzen duela.

**ARRASATEKO
AMNISTIAREN
ALDEKO GESTORAK**

LAURA
GAZTE MODA
Erdiko kale, 30
ARRASATE
Tfnoa: 79 57 20

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**
 **77 05 65**

Zer irizten diozu San Andres auzoaren eraberritze planari?



**Luciano Gutierrez
Jubilatua (63 urte)**

Hemen zarata handia dago, baina gauza garbirik ez, oraindik behintzat. Lehen bazen plan bat, orain zertan geratu den...




**Kontxi Beltran
Langilea (38 urte)**

Badakit plan bat badagoe-la, baina ez dakit zehatz mehatz zer konpondu behar duten. Konpontzea printzipioz ondo iruditzen zait, hemen dena hankaz gora dago eta.



**Karlos Martinez
Coprecikoko langilea
(38 urte)**

Ez naiz San Andresekoa eta ideiarik ere ez daukat horri buruz.



**Paulo Azpilikueta
Harakina (60 urte)**

Ondo iruditzen zait, plana ondo dago eta baita konpon-behar ugari ere hemen.



**Consuelo Cañada
Etxekoandrea (57 urte)**

Hobetzeko bada, ondo iruditzen zait. Nik ez daukat konpondu beharrik, baina uste dut auzokideen artean ez dagoela elkartasunik eta zaila izango dela zerbait egitea.



**Iñaki Carmona
Langabetua
(26 urte)**

Nire ustez igogailuen asuntoak ez du etorkizunik; fatxadarena eta gainontzekoa, ondo dago, baina norberaren kontua da.



**Pilar Melero
Jubilatua (69 urte)**

Nire ustez ondo dago, fatxadan edo igogailuetan egiten den edozein konponketak igo egingo du eta etxebizitzaren balioa. Nik neuk badut hortan sartzeko asmoa.



**Maria del Carmen
Dominguez
Etxekoandrea (28 urte)**

Berandu samar dabiltzala iruditzen zait, jendeak bere kabuz gauza asko konpondu ditu eta orain horretan sartzea dirua galtzea da.

ESKAINNTZA

Betaurrekoak
2.500 PTatik aurrera!



GARAGORRI
OPTIKOAK

Iturriotz, 29
Tfnoa: 79 16 98
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13
Tfnoa: 76 13 73
BERGARA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutzegoria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaiio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
Udalizaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 22	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Morales San Andres.	
Larunbata 23	
Egunez: Azkoaga. Ferrerías.	
Gauetz: Azkoaga. Ferrerías.	
Igandea 24	
Egunez: Español. Iturriotz.	
Gauetz: Español. Iturriotz.	
Astelehena 25	
Egunez: Corcuera. Musakola.	
Gauetz: Corcuera. Musakola.	
Asteartea 26	
Egunez: Irizar. Erguin.	
Gauetz: Irizar. Erguin.	
Asteazkena 27	
Egunez: Amezua. Santamaina.	
Gauetz: Amezua. Santamaina.	
Osteguna 28	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Morales. San Andres.	

22 OSTIRALA

ZINEA

"Más pelas" (7,10)

ENERGIA NUKLEARRA

"Energia nuklearra eta Chernobil" hitzaldia. Hizlaria: Manu Azkarate. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

BLUES KONTZERTUA

All Nighters taldearekin blues kontzertua. Gaueko 11etan. Elorrioko Arriola Aretan.

23 LARUNBATA

ZINEA

"La sombra del lobo" (5, 7.30,10)

HARATUZTEETAKO KARTEL IRAGARLEA

Haratuzteetako kartel irabazlearen aukeraketa. Eguerdiko 12etan. Arrasateko Udaletxean. Saria: 50.000 PTA.

EUSKAL HIZKUNTZALARI-TZAREN IHARDUNDALDIAK

"Hitz-elkarketa: sailkapena (II)" izeneko hitzaldia. Emalea: Miren Azkarate. Goizeko 9.30etan. Bergarako UDE-De. Beharrezkoa da matrikula ordaindua izatea.

GOIKOBALUREKIN, ZATOK KANTATZERA

Goikobalu abesbatzak kanpaina berezia jarri du martxan kantore berriak erakartzeko. "Goikobalu abesbatzarekin zatok kantatzera" lelopean, bertan kantatzeko interesatuta duten guztiak bildu nahi ditu abesbatzak eta horretarako telefono bat ere jarri dute: 79

18 19. Horretaz gain, ostegunero San Frantzisko Xabier ikastolako entsaioetara ager zaitezke. Aipatu behar da ere datorren ostegunean euren Batzar Nagusia burutuko dutela Goikobalukoek. San Frantzisko Xabier ikastolan arratsaldeko 7etan izango da.

ENERGIA NUKLEARRARI BURUZKO HITZALDIA

Eguzki taldeak "Energia nuklearra eta Chernobil" izeneko hitzaldia antolatu du gaur arratsaldeko 7etarako. Manu Azkarate, Chernobil-en egondakoa izango da hizlari. Bestalde, Oñartzunen izango den ekologiarri buruzko bertso saioa ere antolatu dute biharko. Maddalen Zoro pilotalekuan gaueko 11etan hasiko den saioan, honako hauek hartuko dute parte: Jon Lopategi, Jon Maia, Jon Sarasua, Jon Enbeitia, Maddalen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariak. Sarrera: 500 PTA.

24 IGANDEA

ZINEA

"La sombra del lobo" (5,7.30,10)

PINTURA ERAKUSKETA

Pauxi Bengoa, Luis Mesonero eta Mikel Arroibe aretxabaletar pintoreen erakusketa ikusteko azken eguna. Aretxabaletako Artano tabernan.

SANTAMAS ARGAZKI ERAKUSKETA

Santamasetako argazki erakusketa ikusteko azken eguna. Harresi Aretan

MENDIKO IRTEERA

Aretxabaletako Murruxiko taldeak antolatutako mendiko irteera. Ibilera: Hiruaitz-Ametzueta-Orkatategi. Irteera: goizeko 9etan Partenoitik.

BAINUETXE PROGRAMA

1993rako Bainuetxe programa aurkeztu du Inersok. Pentsiodun eta jubilatuei zuzendutako programa honen bidez, Penintsula osoan zabalduriko 40 bainuetxetara joateko aukera zabaltzen zaie jubilatuta eta pentsiodunei. Bi txanda izango dira: martxotik abuztura eta irailetik abuztura. Lehen txandarako izenak emateko epea datorren astelehenean itxiko da.

25 ASTELEHENA

ZINEA

"La sombra del lobo" (7,9.30)

ARTISAUTZA IKASTAROA

Artisautza ikastaroaren hasiera. Irakaslea: Maria Pilar Uzkiar. Arratsaldeko 6.30etan. Arrasateko Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

BAINUETXE PROGRAMA

Jubilatu eta pentsiodunei zuzenduta, Banuetxe Programan izenak emateko azken eguna. Martxo eta Abuztua bitarteko txandak.



"LA SOMBRA DEL LOBO" FILMEA

Artikoko lautada izoztuetan grabaturiko filme hau, "El último emperador" eta "Bailando con lobos" pelikulak bezala, abenturazko filme onenarikoa da. Belaunaldiz belaunaldi, gizaki talde bat edertasunez betetako lurralde hauetan bizi da. Inuit-ek euren ohiturei oso lotuta jarraitzen dute baina Agaguk heltzen denean gauzak aldatuz joango dira. Pertsonaia nagusien artean hauek: Lou Diamond Philips, Donald Sutherland, Toshiro Mifune eta Jennifer Tilly.

26 ASTEARTEA

ZINEA

"La sombra del lobo" (7,9.30)

ANALISI TRANSAKZIONALA

Analisis transakzionala ikastaroaren hasiera. Bi txanda: 4etatik 6etara eta 6.30etatik 8.30etara. Arrasateko Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

SUKALDARITZA ETA POSTREGINTZA IKASTAROA

Sukaldaritza eta postregintza ikastaroaren hasiera. Arratsaldeko 4.30etatik 8.30etara. Emalea: Maritere Altuna. Arrasateko Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

27 ASTEAZKENA

28 OSTEAGUNA

ZINEA

"El guardaespaldas" (7,9.30)

ZINEA

"El guardaespaldas" (7,9.30)

GOIKOBALUREN BATZAR NAGUSIA

Goikobaluru abesbatzaren batzar orokorra. Arratsaldeko 7etan. Gazteluondoko San Franzisko Xabier ikastolako areto nagusian.



AMODIOZKO GUTUNEN I. BERRIGARA LEHIAKETA

Bergarako Berrigara aldiak amodiozko gutunen I. Berrigara lehiaketa antolatu du. Lehiaketan 1978an baino lehenago jaiotakoek har dezakete parte. Euskaraz izan beharko dira gutunak eta datorren otsailaren 14a baino lehen bidali beharko dira Berrigara, Errotalde Jauregia helbidera. Sariak honako hauek izango dira: lehena 75.000 PTAKoa, bigarrena 40.000 PTAKoa eta bergarar onenarentzako saria 25.000 PTAKoa izango da. Sari ematea Berrigararen 100. alearen kaleratzea dela eta, martxoan antolatuko diren ekintzen barruan egingo da.

INGURUAREKIKO INPAKTU IKASKETAK

Bergarako UNEDeko geografia eta historia departamentuak, inguruarekiko inpaktu ikasketak eta informazio geografikoaren sistemak ezagutzeko, hitzaldi eta saio praktikoko batzuk antolatu ditu. Datorren otsailaren 6an hasiko dira hitzaldiak eta martxoan zehar izango dira praktikak. Ikasle kopurua mugatua izango denez, otsailaren 1 baino lehen aurkeztu beharko dira matrikulak. UNEDeko ikasleek 20.000 PTA ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 25.000 pezet.

MASAIA IKASTAROA

Datorren urtarrilaren 30ean masaia haserako ikastaroa hasiko da Arrasateko Yoga Elkartearen. Larunbatero izango da ikastaroa arratsaldeko 5etatik 8etara. Izenak emateko epea zabalik duzue, telefono honetara deituz: 79 35 76.

“HIESari aurre egitea bizitzari aurre egitea da, bere epilogo tenporala, heriotza, barne.

Gaixotasun honek gauza asko jartzen ditu mahai gainean eta horiei aurre egin behar diegu. Sexualitateaz, bizitzaz/heriotzaz, solidaritateaz, maitasunaz, borrokaz eta indarraz hitzegun (eta egin?) arazten digu. Baita gauza guzti horietaz negatiboan ere. (...) Muxuak, eta gogoratu: ‘maitasunak dena sendatzen du’”.

Jon Salaberrik 1993-1-13an

egin

“Herri honetako nekazariak, gizartearen %1a gutxi gora behera, gainerako %99ari zer produktu eta zerbitzu mota behar duen galdetzea beste irtenbiderik ez dute. Nik dakidala, orain arte ez da ia horrelakorik egin.(...)”

Nekazari izateagatik Administrazioak errenta osagarri batzuk eman ditzala eskatzea, baserritarra *plantilako fijosat* errekonozitzea da, ‘*lurraldea gestionatzen duela*’ suposatzen delako, eta batek daki zer den hori. Funtzionario publiko bokazioa herri honetan harripeatatik ere atera egiten da”.

Antton Perez de Callejak 1993-1-13

EL MUNDO
PAIS VASCO

“Gizarte honek norbanakoaren hezkuntza integrala bultzatu nahi badu, eragin egin behar du derrigorrez kampus unibertsitarioetatik kanpora ere, kultura politika batekin bizitza honetako aisialdian ere pertsona formatuz joan gaitezen. (...) kultur, kirol eta beste edozein helburu ‘duineko’ taldeak dira, nire uste apalean, kooperatibismoaren kontzepzioa lantzen dutenak, egunero euren elkarteetan”.

Jabier Ozaetak

lankide

LORATEGI
taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67 ARRASATE


ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK



77 05 65

Zer da ‘Elkarri’ eta zertan dago Arrasaten?

Elkarri Gizarte mugimendu berri bat da, edozein gatazkaren konponbiderako elkarrizketa proposatzen duen mugimendua, elkarrizketaren bidez bakerako bidean jarriko gaituen akordiotara heltzea nahi duena. *Elkarri* mugimendu autonomoa da; edozein pertsona onartzen dugu, edozein ideologiatakoa, baina lan egiterakoan ideologia alde batera utziko duena. *Elkarri* ideologiaren gainetik egon nahi du, gure lana bitartekari izatea denez, arazoa duten bi parteei errespetu eta ahalegin berdina eskatu eta zor diegu eta.



Mattin Amundarain
Elkarri taldeko partaidea

Oso zaila da oreka hori lortzea, eta baita ezinbestekoa ere. Labur esanda, batzen gaituena urrutiratzen gaituena baino gehiago dela pentsatuz, *Elkarri*ren lana Elkarrizketaren Kultura sortzea litzateke.

Arrasateko *Elkarri*ren sorrera aurkitzeko, urtebete atzera egin behar dugu. Orduan 7-8 lagun bildu eta bakea lortzeko genuen kezka hitzegun eta hilabete batzutura, beste jende bat kezka eta asmo beragaz zegoela jakin genuen. Harremanetan jarri, hitz egin, zalantzak plazaratu... Euskal Herri mailan *Elkarri* aurkeztu zen arte, abenduaren 20an. Orduetik 8-10 lagun gabilta eta aste honetan 17-18 lagun berri gonbidatu ditugu bilera batetara, informazioa eman, iritziak jaso eta, nahi badute, bitartekari izateko konpromezuaren islada izan daitezen Arrasaten. Bilera horren helburuak, taldea finkatu eta bakoitzaren partaidetza zenbaterainokoa izan daitekeen jakitea izango lirateke: bileretara joan, gauzak antolatu edo eta dirulaguntza emateko prest ote dauden.

Informazioa nahi baduzu zure esku duzu gure laguntza.



“Bezeroaren telefonoa”
901- 20 20 20

Edozein zalantza konponduko dizugu:


- Hornidura-eskabidea
- Kontratazioa: altak, bajak, aldakuntzak
- Ordainagiriaren gaineko argibideak
- Ordainagiriak banketxean helbideratzea
- Kontadore irakurketak hartzea

Eta behar duzun beste edozer kontsulta edo informazio.

IBERDROLA

EPPko asanblada orokorra, pentsatu bezala

Eskola Politeknikoko Batzar Nagusian ez zen sorpresarik gertatu eta gaitzerrenda osoa onartu zen. Akordiorik garrantzitsuena, datorren urtean Eskolan Goi-mailako Ingeniaritza ikasketen hasierari buruzkoa izan zen.



Azoka plazako postu batzuk oraindik jabe barik

Azokako postu finko eta berezietako azken adjudikazioak, joan den ostiralean burututakoak, ez zuen arrakasta handirik izan. Asteazken eta ostiralean betetzen diren postuei eranstean zaie berezi izendapena, eta horrelakoetatik, zeuden bost postuetatik hiru bete ziren: fruta eta berdurak saltzeko bat eta bi gozotegi. Postu finkoen adjudikazioa ere ez zen ondo joan, zeuden sei postuetatik bat bakarrik bete baitzen, ferreteria. Gauzak horrela, Udalak erabaki egin beharko du bete barik geratu diren postu finko eta bereziekin zer egin, bete nahi baditu beste lehiaketaren bat antolatu beharko du eta.

Drogomenpekotasunen prebentzioari buruzko topaketa komunitarioa

Drogomenpekotasunen prebentzioaz hitz egiteko, herriko kultur eta kirol elkarteetako 50en bat ordezkari Pleno Aretoan bildu ziren larunbatean. "Drogomenpekotasunen Prebentzioa: guztioi dagokigun erantzukizuna" mahainguruaz hasi zen iharduna, Jaurlaritzako Drogomenpekotasunen Idazkaritzako ordezkari bat, Askagintzako Txus Congil eta Euskadiko Gazte Kontseiluko ordezkari batekin. Mahaingurua bukatuta, bildutakoak 12-14 laguneko lan-talde txikietan banatu ziren, eztabaidatu eta ondorioak ateratzeko.

Gaiak jarraipena izango du.

onenaren saria, 20.000 PTA, Jose Luis Feok irabazi zuen; bigarrena, berriz, Xabier Hidalgok. Azkenik, Olenzero eta Txoronpioren argazki onenaren saria Karmelo Uribarrenentzat.

Ludoteka-zerbitzua martxan

Ludoteka-zerbitzuaren berri emanez, AEDko ordezkariak ludotekan bertan prentsaurrekoa eskaini zuten joan den ostegunean. Ludotekako arduradunek, ludoteka erabili ahal izateko bazkide

egin beharraz eta ludotekak umeengan izan dezakeen eraginaz hitz egin zuten. Astelehenetik zabalik dago Ludoteka.

Al-Andalus Elkartearen asanblada jendetsua

Estatutuetan aldaketak egin eta urterako iharduera onartzeko, Al-Andalusek dituen 400 bazkideetatik 191 bildu ziren Asanblada Orokorrean. Estatutueta aldaketen ondoren Elkarteak "Gipuzkoako Al-Andalus Kultur Elkarte" izena du. 1992an egindakoa

aztertzerakoan, baikor ageri ziren Al-Andalusekoak, aurtengo egitaraua prestatzerakoan bezala. "Gutxienez Andaluzia eta Rocio eguna, kultur astea eta udazkeneko jaialdia antolatu ditugu, —zioen Rafael Gomez presidentek— Gipuzkoako anaidi rozieroa sortu eta pare bat elkartruke egin". Aurten Al-Andalusek 7.025.000 PTAko aurrekontua dauka, eta horri aurre egiteko Udalak diru gehiago emango dien esperantza azaldu zuen Gomezek.

Gaztetxea margolarien bilgune

Herriko eta kanpoko hamarren bat artista Gaztetxeako hormak margotzen aritu ziren joan den asteburuan. Artistek, egindako lanaren truke ez zuten ezer eskatu, baina Gaztetxeok adierazi dutenez, badute artistei afariren bat ordaintzeko asmoa.

JAIOTZAK
• Iker Hernandez Benito. Urtarrilaren 11n.
• Lidia Orduña Velasco, 14ean.
• Maria Alzola Gordo, 18an.
HILDAKOAK
• Emilio Gutierrez Beato. Urtarrilaren 13an. 88 urte.
• Montserrat Sancho Mendoza, 14ean. 72 urte.
• Emilia America Alvarez Verde, 16an. 80 urte.
• Petra Alberdi, 16an. 93 urte.
• Josefa Gonzalez Jimenez, 17an. 84 urte.
• Juan Mondragon Berezibar. 17an. 90 urte.
• Jose Luis Ayerbe, 18an. 54 urte.

Santamasetako Argazki Lehiaketa

Jabier Ozaeta izan da Santamasetako Argazki Lehiaketako irabazle; ondorioz, 25.000 PTAko saria berarentzat. Argazki

TXOKO TABERNA
 Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak
 Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

DUKIENA jatetxeak neska euskaldun eta esperientziaduna behar du jatetxean lan egiteko. Interesatuok dei egin (945) 44 50 86 tfnora.



PABLO GUTIERREZ ALONSO *

Ikasten erakutsi

Ikastea, gure buruan bukatutako zerbait jasotzea baino askoz gehiago da. Gure inteligentzia eta borondateari eraikuntzako ahalegin handia eskatzen dio. Ikastea ekintza aktiboa da; bakoitzak pertsonalki egin beharreko lana.

Ikastaldi baten eraginkortasunari faktore askok eragiten diote: garapen maila, bakoitzaren lanerako gaitasuna, ikasteko daukagun motibazio pertsonala, laguntza pedagogiko mota etb.

Ikasle bakoitza nondik abiatzen den oso kontutan izan behar da, gaiari buruz dituen ezagupenak, lanari nola aurre egiten dion eta lortzen dituen emaitzak, aurkitzen dituen ereduak nola hartzen dituen, lanerako zer bide erabiltzen duen, hitz gutxitan, lanerako izan ohi duen era.

Gure seme-alabei egiten dutena egiten eta egiteko moduan lagundu nahi badiegu, zer eta nola egiten duten

jakin beharko dugu, eta erak jabetu daitezela ikasteko dituzten modu eta ohiturez. Ez ikasten dutenaz bakarrik, baita ikasteko eraz ere. Horatik aurrera, ikasketako estrategiak aldatuz joan ahal izango dira, eta "ikasten ikasi" egingo dute.

Horretan laguntzeko, erreflexio txiki bat egin nahi izan dugu, puntu hauetan laburbilduta:

- Gaur egun ez da lehen bezala irakasten. Zer aldaketa egon da, eta zer ondorio dakar horrek hezitzaile barentzat, profesionala izan edo ez? Nola ikasten dute ikasten dutenek?

.....

"Ikasle bakoitza nondik abiatzen den oso kontutan izan behar da"

- Inteligentzia, gaitasuna, jarrerak, pertsonalitatea, motibazioa, errendimendua etab. etengabe inguruan ditugu. Horietatik zeintzuk izan behar ditugu kontutan heziketa eraginkor batez hitzegitean?

- Ikasteko era modernoak badaudela esaten da, ikasteko teknikak eta abar. Zer komeni zait jakitea horietatik eta nola gerta daitezke baliagarri? Lan baldintzak, lanaren planifikazioa, lanerako erak eta antzekoak, behar adina baloratzen ote ditut?

- Oinarrizko kontzeptua "ulertzea" da, ez ikaste prozesuan bakarrik, baita bizi-tzan ere. Zer da ulertzea? Hobeto ulertzen irakasterik badago? Zer teknika dago horretarako?

- Gauzak arrazoitu beharra dago, horietan pentsatu eta eurretaz behar bezala hitzegin. Egunero egin beharreko lana da. Zer moduz moldatzen naiz horretan? Behar den bezala pentsatzen erakusteko gai ote naiz? Nire praktika hobetzerik badaukat?

- Lanean zentratzea oinarrizkoa da. Ba ote dakit lanean, eta arreta, kontzentrazioa, eta memoriari buruzko aholku onak ematen?

- Ia sekula ez da bakarrik ikasten. Besteak nire inguruan daude, lagundu egiten didate, edo ez. Isolatuta bakarrik ikasten da? Nola aprobeitza dezaket besteek duten alde positiboa eta negatiboari uko egin?

**IRAKASLEGOAREN AHOKULARI
PSIKOPEDAGOGIKOA**
(Erredakzioan itzulia)

USTEAK USTE

ELKARRIZKETA INTERESGARRIA

Joan zen larunbatean gertatuta, hilak 16.

Topaketa berezi bat omen dago Udaletxean. Lortuko al dugu daukagun helburua? Ez da batere erraza. Drogomen pekotasunaren prebentzioari buruz hitzegiteko asmoz 45 pertsona biltzeko gaude.

Goizeko hamarrak dira. Pleno aretoa, ia beteta. Nahikoa toki, baina ez sobran. Denok azaldu gara: gazte eta zahar, ikasle eta irakasle, seme-alaba eta guraso, eta herriko hainbat elkarte esberdinetako ordezkari. Ze nahastea!! Nori okurrituko zitzaion ideia hau...

Erakunde batzuetako ordezkariak hitzegiten digute. Giroa berotzeko, ziur asko. Elkarrizketa sortzen da. Animatua, gainera. Moztu egin beharko, taldeka jarraitu behar dugu lanean eta.

Gure taldean Gaztetxe eta AEDko gazte batzuk daude. Baita karroza batzuk ere. Hasi hitzegiten eta ezin bukatu. Hau eztabaida interesgarria. Zer ari da gertatzen gure gizartean? Itxuraz ez gara gai hitzegiteko, ez familian, ez eskolan, ez kuadrilan... nora goaz horrela? Eta zergatik egoera hau?

Hirurak Parrokixako erlojuan. Gosetuta, elkarrekin bazkaltzen dugu. Baina, bukaeran, beste gose bat sortu zaigu: hitzegiten jarraitzeko gosea. Ze gozada! Deunoro, noizko jarraipena?

JOSE RAMON ELORTZ

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK



77 05 65



HIES-Ekimena urteko asmo berriekin

Iazko balantzea egin eta urte honetarako egitarauaren berri emateko, prentsaurrekoa eman zuen asteazkenean Jon Salaberrik "HIES Ekimena"ren izenean. Arrasaten eta ondoko herrietan HIESaren inguruan antolatutako ihardunaldiak, HIESaren mundueguna, 20 hitzaldi baino gehiagoren antolaketa, Seberon mahai informatiboak jartzea, "Quiereite quiereite" aldizkariaren argitaralpena... eta beste hainbat ekintza aipatu zituen Jon Salaberrik. Eguneroko lana, beste erakunde batzuekin izandako harremanak eta saldutako materialaren berri ere eman zen: 11.000 antisorgailu, 1.600 kartel, Hies Ekimeneko 6.500 aldizkaritxo baino gehiago, 1.500 pegatina, "Quiereite-quiereite" aldizkariaren 250 ale, Sidapress aldizkariaren 100 ale eta beste hainbat gauza.

Diru kontuak ere aipatu ziren, esanez HIES Ekimena taldeak iaz, Udaletxe, enpresa eta material salmentaz aterata, 1.836.062 PTA jaso zituela eta 1.742.721 PTA gastatu. Aurten, berriz, HIES Ekimena taldeak

2.000.000 PTAko aurrekontua dauka.

Egitarau zabala

Guraso, gazte eta begiraleentzako tailerak, prebentzio/informazio programa eta auto-laguntza taldearen programa aurrera eramaten gastatuko dira aurrikusten denaren zatirik handiena. Programa horien barruan: sexualitatea eta beste gai batzuri buruzko ikastaroak, antisorgailuei buruzko informazioa, ibilbideak, bidaiak, hitzaldiak, publizitate kanpainak... sartuko lirakeke.

Aipatutakoaz gain, Arrasateko harrera etxe baten beharraz hitz egin zuen Jon Salaberrik, "Doan edo merke alokatuko liguken edozeini hartuko genioke, toki altuan ez badago, jendea samur joan dadin. Gaixo eta familiartekoak bildu ahal izango lirakeke eta kale gorrian daudenek tokia izango lukete".

Azkenik, HIESari aurka egiteko laguntza ematearren, zerbait erosterakoan, saltaileei nor ordezkatzen duten galdetzea gomendatu zuen Salaberrik.

Udal Plenoa atzeratu

Gaur arratsalderako iragarrita zegoen Udal Plenoa atzeratu egin dute datorren astera arte. Atzerapen horren arrazoi nagusiak, Udalak San Frantzisko Xabier Ikastola eta San Viator Ikastolarekin sinatu behar dituen hitzarmenen inguruan aurkitu behar dira. Ikastola biekin akordiotara iristeko arazo handiak dauzka Udalak, eztabaidatu arren ez baita adostasunik lortu; era berean, Udaletxean ordezkaritza duten alderdi politikoen artean ez dirudi Hitzarmenekiko jarrera bateraturik dagoenik. Edozein modutan, alderdi politikoez ikastolekin sinatu beharreko Hitzarmenaren gaia erabat erabakita eraman nahi dute Udal Plenora, interesatuekin eta euren artean akordioa edo nolabaiteko kontsentsua lortu eta gero. Ondorioz, gaurko iragarri zen Plenoa datorren astean burutuko da.

Iturbide Egoitzako obrak bukatuta

Suteen aurkako babeserako sistema jartzeko lanak bukatuta, Iturbide berritze plana amaitu da. Suteen aurkako sistemaz gain, bere garaian berrikuntzak egin ziren geletan, mugitzeko zailtasunak zituztenentzat egokitzeke. Guztira 14 milioitako aurrekontua izan dute obrek gutxi gorabehera.


MENDI taberna
Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



400 milioitik gorako urbanizazioak makina bat kezka eragin du.

Oraindik erabakirik ez Txotxueneko urbanizazioaz

Txotxueneko obrek eragindako kalteak konpontzeko, Udala - Brues enpresa eraikitzailea eta bizilagunak akordiora iritsi ondoren, auzoko urbanizazioa nork egin beharko duen galderak kezka ugari sortu ditu Txotxueneko bizilagun eta tailer txikietako jabeen artean.

Txotxuene inguruan bizi edo lantegiren bat dutenen galderak, ez du oraindik Udalaren erantzun garbirik jaso, ez baita oraingoz batere erabakirik hartu. "Repartzelazioa bukatu eta gero -zioen Juan Antonio Ur-dangarinek, Hirigintza, herri lan eta inguru-giro Saileko Buruak- bakoitzari dagokion kuotak pasatuko dizkio Udalak. Urbaniza-

zioa subentzionatu edo ez subentzionatzeko erabakia orduan hartuko da, ez orain. Ofizialki, %100a bertakoei ordaintzea dagokie, baina orain arte Udaletxean subentzioen aldeko sentsibilitate hori agertu da eta pentsa daiteke bide horretatik jarraituko duela".

Etxebizitza arteko pasabidea zabalik utzi, Gipuzkoa Etorbideko 40. zenbakiko kalteak konpondu, bertako bizilagunei 4 milioi ordaindu eta etxeetan anpliazioaren bat egitea posible den ikusteko Bruesek ikerketa egiteko akordioa lortuta ere, normala da Txotxuenek bizilagunek urbanizazioaz kezkatzea, poligono osoaren urbanizazioa kostua 400 milioitik gorakoa baita.

Amat-Garagartzza espaloia

Garagartzatik Arrasatera egin beharreko oinezkoentzako bidearen kontu zaharrari irtenbidea emateko, lehen urratsa eman da Udalaren aldetik. Izan ere, Udalak LKSri proiektua egiteko enkargua egin dio. Horretarako 2.616.419 PTAko aurrekontua onartzea erabaki zen.

Erdiko Kaleko birgaitzea geldirik oraingoz

Erdiko Kaleen etxaurretako birgaitze lanak burutze ko baimena eskatu zitzaien Udalari, baina gaia mahai gainean utzi da. Birgaitze plana aurrera eramateko asmoa sendoa da eta gaia mahai gainean uztea erabakitzeke orduan, obraren zergaren ordaintzarekin zer egin ez zekitela hartu zen kontuan. Normalean, horrelako obretan zergen %10a ordaintzen da; hala ere, baliteke kasu honetan ordaindu beharrik ez izatea, eta beste herri batzuetan zer egin duten ikusi arte, ez da erabakirik hartuko.

zortzi

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otatora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Alkoholarekin arazoak daukazu?
Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

UXARTE
Kafetegia, gozotegia
Gauz irekita!!
JO TA KE!!

Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK

77 05 65



Zerbitzu-gida etxez etxe banatuko da Mankomunitateko herrietan

Mankomunitatearen zerbitzu-gida berria

Hondakin-bilketarako zerbitzuak egoki erabiltzeko, Deba Garaiko Mankomunitateak etxez-etxe gida bat banatuko du Arrasate eta Mankomunitateko gainontzeko herrietan. Etxeetako zaborbilketa, hondakin handien bilketa, beira bilketa, paper eta pila bilketa eta hondakindegia alternatiboaren zerbitzuak ahalik eta ondoen erabiltzeko aholkuak agertzen dira Mankomunitatearen gidaliburuskari.

Zaborraren bilketari buruz, poltsak ondo itxita utzi eta 25 kilo baino gutxiago izatea gomendatzen du Mankomunitateak banatu-

tako gidak. Era berean, gidak zaborra ateratzeko egun eta orduen berri ere ematen du. Arrasateko kasuan, astelehen, asteazken eta ostiraletan Erdigunearen zati batean, San Andresen, Erguin, Garagartza eta Gesalibarren; asteartea, osteguna eta igandea, berri, Erdiguneko beste zati batean, Musakola, Santamaina eta Santa Teresan, kasu bietan gaueko 10etatik aurrera. Hondakin handien bilketaz Arrasaten hileroko laugarren ostegunearan egiten dela gogoratzen da, aurrez 79 33 99 telefonora deitu eta han ordua hartu trasteak atarira ateratzeko.

Jaiak Gesalibar eta Meatzerrekan

Urtarrilaren bukaeran Meatzerrekan eta otsailaren lehen astean Santa Agedan, jaiak izango dituzte. Egitarauan sartu barik, aipagarria da auzoetako jaietarako, aurrekontuak onartzerakoan beste ezer ez bada esaten behintzat, iazko kopuru bera izango dela. Oraindik aurrekonturik onartu ez denean, argi dago joera gastu publikoa murriztekoa izango dela; edozein kasutan, auzoetan ez dute iaz baino diru gutxiago izango, mantentzera joko da.

Informatika gelarako moni- torea behar da

Monterrongo informatika gelan egun osoz lan egiteko monitorea behar da. Monitoreak, instalazioak ireki eta itxi, erabiltzaileei aholkuak eman, materiala zaindu eta progamak prestatu beharko ditu. Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko, curriculumak aurkeztu behar da Udaltxean, hila bukatu aurretik.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Sebero Altubeko ludotekako ateak pasa den astelehenean zabaldu ziren **AEDko Txatxilipurdi** taldearen eskutik. **Goizane**

Jausoro eta Amaia Gabi-londo dira bertako ludotekariak eta **arratsaldean bertan biltzen diren umeen arduradunak ere.**



Aste honetan eta datorren iganderarte Monterron inguruan Italia aldetik iritsi zitzaigu kamioi bitxia dugu. Bertan, narrasti, harratz, piraña eta intsektuak ikus daitezke. Hogeita hamazortzi animalia hauek, txiki eta handien ikusmina piztu dute.



Pasa den asteartean **San Sebastian** jaiaren bezpera ospatzen zela eta, Arrasateko ikastolan ere tanborrada

berezia antolatu zuten. Nahiz eta argazkian hauek bakarrik agertu, ikastolako guztiek hartu zuten parte.

Larunbatean Santa Barbara Parkean judoka talde bat ikusi genuen. Zuriz jantzitako neska-mutil hauek, kolore desberdinetako gerrikoaz berde, marroi, urdin eta abarrez, kontraste paregabea sortzen zuten Sta Barbarako paraje ederrean.



LIPOESKULTURA eta ZELULOLIPOLISIA

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.


Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento esklusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie




Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

**Antton del Campok eta Felix Lezetak Monterro-
nen dagoen zuhaitz
honen altuera neurtu
dute. Esaten denez,
Gipuzkoan dagoen
zuhaitzik altuena izan
daiteke. Ez pentsa
gauza erraza denik hau
neurtzea, horretarako
takimetroa erabili dute.
Sequoia Dendron
Giganteum izeneko
zuhaitz honek 45
metroko altuera du.**



JOSEBA

IZEN PROPIOAK

● Eskola Politeknikoko Batzar Nagusian kide berriak sartu dira: **Joseba Etxebarria** eta **Gotxon Arregi** Bazkide Langileetako Errektoreak, **Julio Canton** eta **Txomin Garcia** Bazkide Laguntzaileetako Errektoreak eta **Susana Lete** eta **Angel Mari Arregi** onuradun bazkideetako errektoreak.

● Santamasetako argazki lehiaketan, **Jabier Ozaeta izan** da multzo onenaren irabazlea, **Jose Luis Feo** argazki onenarena, **Xabier Hidalgo** bigarren argazki onenarena eta **Karmelo Uribarren** Txoronpio eta Olentzeroren argazki onenarena.

● Al Andaluseko Batzar Nagusia honako hauek osatzen dute: **Rafael Gomez, Virginia Amor, Andres Gordillo eta Salustiano Jorge** lehendakaritzan; **Rafael Romero, Antonio Garcia, Rafa Escobar, Fabio Garcia, Antonio Orellana eta Juanito Sedano** Kulturaren eta azkenik, **Jose Gomez, Rafael Raya, Andoni Conde, Ana Cabrera, Antonio Nevada eta Rafael Casas** ekonomian. Horretaz gain, izen aldaketa ere izan dute eta aurrerantzean Gipuzkoako Al Andalus Kultur Elkarte deituko dira.



Honako marrazki hauek aurkeztu dira Arrasateko MECAk antolatutako "Marraztu Renaultentzat auto bat" lehiaketan. Irabazleak: **Eluska Zabalo, Leire Sebastian, Leire Leibar, Endika Torres, Mikel Bergara eta Nerea Garrido**. Sari bezala, pintura estutxeak jaso zituzten pasaden ostiralean eta Espainia mailako lehiaketan sartzeko aukera ere izango dute.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABALETAK**

OSORIK PUB


Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

NEGUKO HAMABOSTALDIA

Urtarrileko aldapa arinago izan
dakizun, aprobetxatu
ARRASATE KIROLAKeko
aukera ezinobea eta
gogoratu, hemen
KIROL BAKOITZARENTZAT
ERANTZUN BAT duzula.




**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzezino Kalea, 8 - Tel 794
ARRASATE-MONDRAGO




Neguko Hamabostaldia



KIROL JANTZIETAN KALITATEA, PREZIORIK ONENEAN

Araba Etorbidea, 18 Tfnoa: 77 14 86 ARRASATE



Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Batzuk afaldu egingo dute, besteak begira egon behar

Kostata, baina azkenean antolatzaile eta jokalarien artean konpondu zituzten diru-kontuak. Konponketa horren ondorioz, aste honetan hasi dira taldeentzako afarien zozketak. Txapelketan hirurogeitamar talde geratzen dira eta horien artean hogeitamarren bat afari zozketatuko dira gutxi gorabehera. Astelehenean zozketa

egin eta hurrengo asteburuan garbitu beharko dira afariaren kontuak. Taldeen erdia baino gutxiagok izango du, beraz, afaltzeko aukera. Sarituak poztuko dira, noski; gainontzekoak, berriz, konformatu egin behar. Edozein modutara, gauzak horrela egiteko erabakia jokalariek hartu zuten, eta orain ez dago damutzerik.

NUEVO
taberna

Bañez Dokfoea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tifnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

Futbito Txapelketa

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULOAK	12	11	1	0	51	21	23
ARGI IBILI	12	10	1	1	80	25	21
LOS HEREDIA	12	8	2	2	58	19	18
AIZPUN BILA	12	8	1	3	45	30	17
ARRASATE KIROLAK	12	7	2	3	42	31	16
URMAY B.K.	12	6	3	3	42	26	15
KAIXO LENIZ	12	7	1	4	52	53	15
BETRAYER	12	5	4	3	38	29	14
DANOK LAGUN	12	5	3	4	33	28	13
ITT	12	6	0	6	52	33	12
BUKANAK	12	5	2	5	35	35	12
SIBILIUS ROVER	12	5	2	5	31	28	12
DRAFT	12	4	0	8	40	59	8
WHISKERIA LINDE	12	4	0	8	39	55	8
DRINK TEAM	12	1	3	8	16	49	5
RESAKAS	12	1	1	10	18	59	3
GARIBAI-5	12	1	0	11	19	59	2
AMOZKIBAR II	12	1	0	11	26	78	2
GUZTIRA	216	95	26	95	717	717	216

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	12	11	1	0	46	12	23
ZIZTI-ZAZTA	12	9	2	1	51	19	20
ZULUS	12	9	0	3	54	32	18
JODO FLORO	12	7	3	2	36	27	17
BIZKORRAK	12	8	1	3	25	18	17
DIEGO ANTONIO	12	6	2	4	46	29	14
PUBLICOOP	12	6	2	4	26	34	14
MOTZ	12	6	2	4	50	58	14
GATZBAKUAK	12	4	4	4	25	36	12
TRONKOTEAK	12	5	1	6	39	40	11
KAKAJAURI	12	4	3	5	33	40	11
LA BANDA	12	4	2	6	30	31	10
ANBOTOSTE K. T.	12	4	1	7	32	39	9
LAUTHERBRUNNEN	12	3	1	8	18	45	7
BAYERN PROMESAS	12	2	2	8	20	51	6
ATERPE KAFETEGIA	12	2	1	9	19	36	5
KAJOI TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	216	94	28	94	589	589	216

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	12	10	2	0	65	16	22
NOSKI	12	10	0	2	67	25	20
ADELAIDA HAIZEA	12	8	2	2	61	19	18
LASO ARREGI	12	6	3	3	52	30	15
ARRASATE KRIST.	12	7	1	4	48	31	15
TXOKO TABERNA	12	7	1	4	35	32	15
GURE LEKU	12	6	2	4	53	36	14
NUEVO TABERNA	12	6	2	4	52	44	14
NAVARROS	12	6	1	5	43	40	13
ADOBE F. C.	12	6	0	6	42	39	12
GANBELAS	12	5	2	5	30	31	12
AUF DEM KOFFER	12	5	2	5	28	33	12
ALPARGATA TURBO	12	4	2	6	37	43	10
KRISKIBALDA	12	2	5	5	29	40	9
BALEIKE	12	2	1	9	20	66	5
ATXANTA KE TE...	12	2	0	10	22	70	4
ALLA KUIDAUS	12	1	2	9	20	69	4
SEGUROS ORBITA	12	1	0	11	27	67	2
GUZTIRA	216	94	28	94	731	731	216

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	12	10	2	0	81	19	22
LEINTZ GARAGAR.	12	9	2	1	47	18	20
POTROAK LORAT.	12	7	4	1	45	32	18
KOXXAS	12	6	4	2	39	33	16
PEPELUS	12	6	4	2	47	28	16
FOTO IMAGEN	12	6	3	3	53	31	15
LOS DIMY	12	5	5	2	55	33	15
ZOTZ	12	7	1	4	38	44	15
NOTXINGAN FLO.	12	6	3	3	50	41	15
MONTERREY TAB.	12	7	0	5	52	34	14
SOLANO 7 MARES	12	5	0	7	48	44	10
SOKOAKOAK	12	4	1	7	45	56	9
ARTZANKOS UDAL.	12	3	3	6	43	46	9
UGLYS	12	4	0	8	27	37	8
OLEEE!	12	3	1	8	34	51	7
EZKINAKO HONTZAK	12	2	0	10	27	76	4
ILUNA TABERNA	12	1	0	11	19	72	2
BAYERN DE LENIZ	12	0	1	11	22	77	1
GUZTIRA	216	91	34	91	772	772	216

Zarugalde kalean...

BRANKA
taberna

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

LIZARRA
taberna

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35



**Atezain ona izateko erdi-eroa izan behar dela esan izan da betik. Hainbeste ez genuke esango, baina adore berezia eta hezur gogorak behar direla bai. Begira argazkikoa; baloiaz aparte, ostikada edo lurra-
ren kontrako kolpea besterik ez dezake eraman.**

BELARRIRA

◆ **Afarien zozketa**
Dagoeneko lehendabiziko bi afariak zozketatu dira, lehen bi sarituak Sibilius Rover eta Nuevo taberna taldeak. Zozketa ATBko Mondrasport saioa burutu zen. Zozketaren garbitasunari buruzko zalantzarik balego, antolatzaille zein ATBko arduradunek adierazi dute zozketara edozein ager daitekeela testigu gisa, inongo beldurrik gabe gainera.

◆ **Jarrera jatorra**
Ez talde guztiei, baina gehienei bai eskertu egin nahi dietela antolatzailleek azken ihardunaldietako jarrera jatorra, eta hurrengoetarako jokabide berbera espero dute.

◆ **Asteko partidur interesgarrienak**
A taldean super-derbia, lehen postua jokoan, Zuloak - Argi Ibili; B taldean Mikelos - Motz; C taldean Laso Arregi - Noski; D taldean, Foto Imagen Artzankos Udalaiz 4 Los Dimy 2

EMAITZAK

A TALDEA

Drink Team 4	Argi Ibili 3
Zuloak 4	Whiskeria Linde 2
Bukanak 1	Los Heredia 1
Arrasate Kirolak 1	Betrayer 1
Resakas 4	Amozkibar II 2
Aizpun Bila 1	Urmay B. K. 1
ITT 11	Kaixo Leniz 3
Draft 4	Garbai-5 2
Sibilius Rover 1	Danok Lagun 1

C TALDEA

Atxanta ke te... 1	Baleike 2
Alpargata Turbo 1	Txoko taberna 3
Laso Arregi 1	Trikiti 1
Ganbelas 5	Adobo F. C. 1
Gure Leku 0	Arrasate Krist. 1
Navarros 5	Alla kuidaus 2
Auf dem koffer 1	Kriskibalda 2
Seguros Orbita 1	Adelaida Haizea 4
Noski 11	Nuevo taberna 3

B TALDEA

Kakajaure 4	Motz 2
Publicoop 2	Diego Antonio 1
Aterpe kafetegia 2	Jodo Floro 4
Zulus 4	Gatzbakuak 0
La Banda 1	Tronkoteak 3
Anbotoste K. T. 2	Zizti zazta 3
Lautherburnen 0	Bizkorak 2

D TALDEA

Monterrey tab. 3	Potroak Lorategi 4
Foto Imagen 3	Iluna taberna 5
Uglys 8	Bayern de Leintz 2
Ezkinako Hontzak 3	Leniz Garagar. 8
Sokoakoak 0	Sum. Ugarte 7
Oleeeel 4	Koskas 5
Solano 7 mares 3	Pepelus 8
Notxingan florest 3	Zotz 2
Artzankos Udalaiz 4	Los Dimy 2

Trikipublik

Kanpatorpea, 2
Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 23

Zaldibar

- 08.45 Publicoop / Lautherbrunnen
- 10.00 Resakas / Kaixo Leniz
- 11.00 Gure Leku / Kriskibalda
- 12.00 Bukanak / Sibilius Rover
- 13.00 Aterpe Kafetegia / Diego Antonio
- 14.00 Ezkinako Hontzak / Bayern de Leniz
- 15.00 Zulus / Tronkoteak
- 16.00 Laso Arregi / Noski
- 17.00 Leintz Garagardotegia / Notxingan Flo.
- 18.00 Auf Dem Koffer / Arrasate Kristaldegia
- 19.00 Adobe / Seguros Orbita

Iturripe B

- 13.00 Garibai-5 / Urmay Burger King
- 14.00 Mikelos / Motz
- 15.00 Arrasate Kirolak / Draft
- 16.00 Bayern Promesas / Bizkorrak
- 17.00 ITT / Amozkibar II

Iturripe A

- 11.00 Jodo Floro / Anbotoste K. T.
- 12.00 Atxanta ke te merces / Txoko taberna
- 13.00 La Banda / Gatzbakuak
- 14.00 Alpargata Turbo / Baleike
- 15.00 Foto Imagen / Potroak Lorategi
- 16.00 Navarros / Nuevo taberna
- 17.00 Aizpun Bila / Danok Lagun

Igandea 24

Zaldibar

- 08.45 Monterrey taberna / Iluna taberna
- 10.00 Ganbelas / Trikiti
- 11.00 Zuloak / Argi Ibili
- 12.00 Betrayer / Los Heredia
- 13.00 Sokoakoak / Pepelus


Iturripe A

- 09.45 Oleee!! / Los Dimy
- 11.00 Adelaida Haizea / Allakuidaus
- 12.00 Zotz / Koxkas

Iturripe B

- 09.45 Uglys / Artzankos Udalaiz
- 11.00 Drink Team / Whiskeria Linde
- 12.00 Solano 7 mares / Suministros Ind. Ugarte

NON DAGO BALOIA?



9. astea

NON DAGO BALOIA?

- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa

Hile honetako zozketa egiteko gero eta gutxiago falta da, hilaren 29ko aldizkarian erabakiko da nork eramango duen 20.000 PTako saria, kirol-materialetan, noski. Beharbada urteko lehen hilabetea izatearren, jendea despistatu samar ibiliko da, eta sekula baino txartel gutxiago jaso dugu. Zer egingo diogu ba! bidali dutenentzat aukera gehiago...

Trikite

S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxe: 79 88 56

● *Ibane Letona*

Arrasatearra Alemanian lanean

Alemania aldeko Kolonia herrian hamaika hilabetez egon ondoren, Gabonak pasatzen izan genuen Arrasaten Ibane. Multinazional batean aritu da lanean eta alemana ikasteko asmoarekin berriz ere Alemanian bueltatu zaigu, oraingo honetan, Berlineko ikastetxe batetara.

— Zer dela eta joan zinen Koloniarra?

— Donostian Zuzendaritzako idazkari ikasketak egin ondoren, Alemanian praktikak egiteko posibilitatea eskaini zidaten. Hasiara batean asko kostatu zitzaidan erabakia hartzea, baina etxean asko animatu ninduten.

— Zein izan da zure lana enpresa horretan?

— Pinturak, musika zintak eta beste hainbat gauza egiten dituzten enpresa batean ibili naiz lanean. Ni hilabete hauetan pinturen saileko esportazio sailean ibili naiz lanean. Lan polita eta interesantea izan da, mundu osoko pertsonekin harremanak izateko aukera izan dut eta.

— Eta orain berriz buelta?

— Bai, baina aldi honetan Berlineko ikastetxe batetara, alemana ikasteko asmoarekin. Gutxienez bost hilabete egongo naiz eta gustora baldin banago, beharbada beste bi hilabete gehiago. Hala ere, gerora begira, Arrasatera bueltatzeko asmoa dut.

— Lagun asko dituzu han?

— Bai, asko. Baina aipatzekoa da lagun gehienak hemengoak direla, ez euskaldunak baina espainolak. Batez ere, turismo ikasi duen jende asko dago han. Ez dut euskaldun bat ere ezagutu hamaika hilabete hauetan.

— Hiri handia da Kolonia?

— Bai, miloi bat biztanle inguru izango ditu gutxigorabehera. Baina nahiz eta handia izan, herri baten antz handia du. Donostiarekin konparatuko nuke, nahiko batuta dago guztia. Ez da galtzeko bezain handia. Auzo asko ditu baina hala ere, nahiko batuta dago eta ez du ematen hain handia denik. Kolonia ez da Alemaniako beste herrien ezaugarriak betetzen dituen hiria, inmigran-



te asko bizi da bertan eta horrek asko aldatzen ditu ohiturak, kanpoko ohiturak.

— Egun normal batean zer egiten zenuen?

— Esan bezala, orain arte multinazional horretan aritu naiz, baina praktika bukatu egin zait. Gutxigora behera 6.30ak aldera jaiki izan naiz, gosalduta eta abar eta metroa hartzen nuen 8etarako lanean sartzeko. 3.30ak arte lan egin eta bazkaldu ondoren, alemaneko klaseak hartzen nituen.

— Hiriko giroa berezia izango da, ezta?

— Bai, ez dut asko irten, baina oso giro desberdina da. Esate baterako, tabernetan eseri eta denbora luzez berbetan egoteko ohitura dago. Hori da beharbada hona etortzen naizenean faltan botatzen du-

dana, tabernan sartu, edan, eta berehala irten egiten dugu.

— Beste mailatan ere desberdintasun asko dago?

— Bai, hasteko Arrasate herri bat da eta Kolonia hiri handi bat. Ni bezala hiri handi baten bizi izaten egon direnei, askotan entzun diet handik etorrita gero Arrasate txiki geratzen zaiela, baina egia esan ni oso gustora sentitzen naiz etortzen naizen bakoitzean. Oraindik ez dut sentitu esaten duten sentsazio hori. Bestalde, hango jendea oso hotza da erlaziotan, hemen biziagoak gara, beroagoak. Berbetan ere nahiko hotzak dira, beti emakume nagusia bezala tratatzen zaituzte. Nahiz eta gazteen artean izan, tratua hotza izaten da.

— Zelako ikuspegia dute Euskadi eta Espainiari buruz?

— Beno, egia esan Euskadi ez dute ezagutu ere egiten. Kirolarekin ere erlazionatzen dute, Tourra Donostian hasi zela eta. Bestela, Espainia ere Olinpiadekin lotzen dute.

● **“Alemanekin konparatuta, askoz ere beroagoak eta biziagoak gara euskaldunok”**

Zazpi lagun lau proiektutan lanean

Rosa Mondragon

Arrisku soldata proiektuaren barruan lau enpresa berri daude martxan Arrasaten. Aurkeztutako hamar proiektuetatik eurak aukeratu zituzten. Orain dela hiru hilabete hasi ziren eta datorren martxoan bukatuko zaie Udalarekin eginiko kontratua. Udalari esker, euren enpresa finkatzeko aukera izan dute. Baina martxoan gertatuko denaz kezkatu agertzen dira.

Badira hiru hilabete arrisku soldataren lau proiektuak martxan jarri zirela. Guztira hamar proiektu aurkeztu ziren. Proiektu bakoitzean oinarrizko ideia, funtzionamendua, enpresaren egitura eta lortu nahi dituzten hel-

buruak ere zehazten zituzten. Udalak bakoitza aztertu ondoren, lau hauek izan ziren aukeratuak: Maria Antonia Rodriguezek aurkeztutako hortz laborategia, Roberto Vazquez eta Josu Galdosen ikusentzuteko komunikazio enpresa, Karlos Oiangurènen bitxitegi fabrikazioa eta azkenik Inma Quinteroren delineazio-zerbitzua. Ikusentzuteko enpresan izan ezik, beraz, bestetan pertsona bakarrak eramaten du bere enpresa.

Hiru hilabete hauetan enpresa bakoitza martxan jartzerakoan sorpresa asko izan dute, merkatuaren errealitatea ezagutzuz joan diren neurrian, hasieran zuten ideia aldatuz joan da eta. "Merkatuaren errealitatea oso gogorra da eta gure ideia martxan jartzeko orduan ere arazo batzuk izan ditugu" esaten digu ikusentzutekoen arduradunak. Kasu bakoitzean,

arazoak desberdinak dira baina, Udalaren babesari izango duten sei hilabete hauek, merkatuak eskatzen dien kalitatea eta kontutan hartzen diren gainerako irizpideak ezagutzen lagunduko diete.

ESPERIENTZIA FALTA

Aurretik antzeko lanetan aritu diren arren, enpresa baten ardura hartu duten lehen aldia da. "Jakina, halako proiektu batetan, sartzeko beharrezkoa da oinarrizko esperientzia izatea eta mugituko garen arloa ezagutzea. Hala ere, enpresa bat sortzen dugun lehen aldia izanik eta normala den moduan, sorpresa handiak izan ditugu".

KONPETIBITATE HANDIA

Gazteak izateagatik, aipatutako esperientzia falta dela eta, Arrasate inguruan duten konpetentzia oso handia da. Produktuak merkatuan sartzeko da gehien kostatzen zaiena. "Onak ote garen zaila da, ez dira fidatzen, esperientzia gutxi dugu... Negozio munduan berriak gara eta horregatik, gure balioa demostratzeko aukera eskatzen dugu". Azken finean, bide bakarra berriztapena eta kontinuitatea da. Euren mailan dagoen jendearengana zuzentzen dira lehendabizi, enpresa handietara jo gabe. Hala ere, konpetentziak ez die inolako laguntzarik eskaintzen, eskatzen duten informazioa ukatu egiten zaie. Horregatik, enpresari berri hauentzat ez da erraza aurretik finkatuta dagoen eremuan sartzeko. "Nire kasuan, konkretuki, Gazteizko laborategiek inguruko herri guztietako bezeroak jasotzen dituzte, Arrasatekoak ere gehien batean bertara zuzentzen dira" kontatzen digu hortz laborategiko arduradunak, Maria Antoniak. Beste kasu batzutan, ikusentzutekoen eta bitxien tailerlean esaterako, kanpotik etorritako produk-

P

roiektuen

bideragarritasuna

frogatzeko sei

hilabetetako

epea dute lau

enpresa txiki

hauek



Sei hilabete pasa eta gero gertatuko denarekin kezkatu agertu dira.

tua izan da bertako merkatua bereganatu duena, seguruenik inguruan ez delako orain arte halakorik izan. "Gure erronka kanpoko produktua sartzen den toki horietara heltzea da. Hala ere, badakigu horretarako gauza asko frogatu beharko dugula".

UDALAREN LAGUNTZA

Katalunian orain dela hamar urte jarri zen martxan antzerako proiektua, iaz Iruenen eta aurten Arrasaten, Bergaran eta Oñatin. Azken hiru herrietan helburu eta eredu bera jarrai-tzen dute. Arrasaten orain arte ikastaroen bidez lanerako prestakuntza areagotu nahi izan da, baina bakoitzak bere lanpostua sartzeara da proiektu honen helburua. Arrisku soldataren bidez, aukera bat ematen zaie. Soldata eta enpresa bat sortzeko aukera hori emateaz gain, "enpresaren sorrera" izeneko ikastaroa

antolatu die Udalak. Ikastaro horretan izan diren hitzaldietan, enpresa berri bat sortzeko eman behar diren pausuak zehaztu dira. Eta behar dituzten aholkuetarako teknikari bat dute lokal berean. Horretaz gain, egunez egun egiten duten lanaren argibideak entregatzen dituzte Udaletxean eta modu horretan jarraipen zehatza egiten zaie.

ETORKIZUNEKO LANBIDEAK

Geroari begira, badirudi gehienak behitatz etorkizuneko lanbide bihur daitezkeela. Batez ere ikusentzutekoen kasuan, Deba Garaian nahiko enpresa berria izanik, etorkizun nahiko ona izatea espero dute. Hortz laborategi eta delineazioaren kasuetan, bestalde, gaur egungo metodoak sartu dira, tresna berriak eta berritzen doazen neurrian etorkizunerako lanbide bihur daitezke. Bitxien tailerra kontutan hartuz, gero eta egoera txarragoa ikusten du Karlos Oianguerenek: "Italian aitzindari izan dira bitxien fabrikazioan eta azken urteotan

oso beherakada handia izan dutela esaten da. Partikularrei saltzea da izan dezakedan irtenbide bakarra". Proiektuan sartu aurretik lanean bere kontura ibili da Karlos eta dendari nahiz partikularrek bere lana ezagutzen dute.

MARTXOAN ZER?

Martxoan bukatzen da Arrisku soldata proiektua eta oraindik ezin da jakin zer jarraipen izango duen. Marga Garmendiak, Udaleko enpleguaren sustapenerako teknikariak esan digunez, "Proiektuak dituen akatsak konpontzeko unerik egokiena izan daiteke. Proiektu berria da eta martxan jarri den lehen aldia gainera, horregatik hurrengorako aldatu behar diren puntuak kontutan har daitezke". Udalak oraindik erabaki gabe du martxoan jarraituko duen estrategia, jarraipena egingo zaie, baina ezin da ziurtatu zer modutan .

Banan banan

Proiektua	Arduraduna	Langileak
Hortz laborategia	M ^a Antonia Rodriguez	1
Ikusentzutekoen zerbitzua	Josu Galdos	4
Bitxitegi tailerra	Karlos Oiangueren	1
Delineazio zerbitzua	Inma Quintero	1

Emakumezkoen rugbya martxan otsailerako

Itxaro Barrutia, Saioa Uriarte, Igone Mendizabal, Itziar Isazelaia, Amaia Alvaro, Itziar Iglesia, Amagoia Zubillaga, Garbiñe Kortabarria, Maia Mondragon, Ainhoa Diaz, Ohiana Barandiaran, Leire Markina, Rebeca Ruiz, Maite Arrieta, Amaia Alberdi eta Saioa Ozerinjaregi dira Arrasate Rugby Taldeko emakumezko talde berriko partaideak. Hamasei neska hauek, 15-16 urtekoak, hilabete t'erdi daramate astean hiru aldiz entrenatzen, Josu Ezkurdiaren aginduetara.

Arrasate Rugby Taldeko veteranoetariko batek zioenez, Kako Mertxanek hain zuzen ere, emakumezko taldea sortzea mesedegarri izango da rugbyarentzat "nolabait desmitifikatu egingo dugu rugbya astakiloen jokia izatearen ideia, edonork egin dezakeen kirola baita, gizonezkoak eta emakumezkoak. Neskak ilusio handiz dabilta eta mutilek baino interes gehiago jartzen dutela esango nuke".

Oraindik baloia pasatzen ikasi, plakajeen teknika landu eta partidu txikiak eginez pasatzen dituzte entrenamenduen ordu gehienak, jokoaren dinamikan sartzeko, eta seguruen



Kadete mailako taldea bezala, emakumezkoa ere antolatuta da.

otsailean jokatuko dute lehen partidu ofiziala. Dena dela, lehen partidu hori berezi samarra izango da, arbitroak eta entrenatzaileak, okerrak zuzentzeko edozein unetan jokia mozteko aukera izango dute eta. Kako Mertxanek ustez emakumeak Euskal Herrian rugbya jokatzeak izugarriko meritua dauka, "Euskadi osoan lau talde ofizial besterik ez baitaude". Aurren, jokatuz noski, helburua ikastea da eta rugbyaz disfrutatzea, rugbyari "hirugarren denbora"z ulertzen dutena, partiduak

bukatu eta gero arerioekin izaten diren harremanak.

Oraingoz hamasei neskatila besterik ez dira rugbya dabiltzanak, baina ateak zabalik ei daude jokatzen ikasi nahi duen edozeinentzat. Entrenamenduak, astearte eta ostiraletan arratsaldeko 7etan eta larunbatetan goizeko 10etan izaten dira, Musakolako kiroldegian. Emakumezko taldearen sorrerarekin eta denboraldi-hasieran jaio zen kadeteen taldearekin beste pausu bat eman du Arrasate Rugby taldeak.

LABURRAK

Saskibaloit taldeentzat partidu erabakiorrak

Bigarren mailako taldeentzat, asteburuan zerbait positiboa lortzea erabakiorra da mailaz igotzeko. Emakumeek etxean jokatzen dute, Gasteizen aurka, larunbatean 6etan. Gizonezkoak, berriz, Azpeitin jokatu behar du, Iraurgiren aurka.

Deba Arroa Pilota Txapelketa otsailerako

Seguru ez bada ere, otsailaren hasieran Deba Arroa Pilota Txapelketa hasiko da. Bi talde egingo dira, baten Elgoibar, Elgeta, Soraluze eta Bergara; bestean, berriz, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Antzuola. Eibarrek oraindik ez du partidetza ziurtatu.

PUBLIKOAREN SARIA

Aukeratu ezazu Arrasateko kirolaririk onena eta 3 baloien zozketan sartuko zara.

Kirolaririk onena:

.....

Izena

.....

Helbidea

.....


Tfnoa



VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06



EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
 Offset industrialia**


Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PENALTIAK

● **Patxi Gorosabelek denboraldi hasieran Arrasate Rugby Taldea utzi egin zuen, lehen mailako Bera-Bera taldera joateko. Bazirudien taldearen jokoan asko nabarituko zela Gorosabelen agurra. Igarri neurri gabeen igartzen dela diote rugby taldekoek, baina Patxi etorkizunerako inbertsioa ei da, lehen mailan ikasten duen guztia gero hemen irakatsi ahal izango du eta.**

● **Nedzad Zivojevic, 37 urteko bosniarra. Lehen mailako futbolari eta entrenatzailea izandakoa, orain Mondra taldeko infantil mailako ekipoa entrenatzen ari da Jose Luis Sextorekin batera.**



Promozio txapelketaren lehen pilotakadak Iturripen

Promozio Txapelketari hasiera eman zitzaion joan den larunbatean Iturripeko frontoian, eta arrasatearrek bergaratarren aurka jokatu zuten. Maila hauetako partiduetan emaitzek ez dute inolako garrantziarik, benetako garrantzia umeak pilotan jokatzen hasteari ematen baitzaio. Dena dela, Txapelketa txapelketa da eta larunbat honetan Arrasateko pilotari gazteenek beste partidu batzuk jokatu behar izango dituzte, Antzuolako Olalde Pilota Elkarteko pilotarien aurka.

Zer moduz rugbyko lehen mailan?

Nahiko ondo, baina entrenamendu gehiago egin beharra daukadala konturatu naiz.



PATXI GOROSABEL
Bera-Bera rugby taldeko jokalaria arrasatearra

EMAITZAK

Saskibaloia

2. maila: Gizonezkoak, Arrasate 86 - Jarrileros 75.
Emakumezkoak, Utxorigorria 64 - Arrasate 61.
Juniorrak: Arrasate 75 - Ordizia 66
Jubenilak: Gizonezkoak, Arrasate B 55 - San Benito 65
Emakumezkoak, Atletico San Sebastian 67 - Arrasate 59
Kadeteak: Gizonezkoak, Andraitz 59 - Arrasate A 52, Arrasate B 43 - Arrasate C 55
Emakumezkoak, Arrasate B 43 - Almen C 55

Hurrengo partiduak

Bigarren mailako Emakumezkoak, Arrasate - Gasteiz, larunbata, Musakolan 6etan.
Jubenilak: Gizonezkoak, Arrasate A - BKL CAF, larunbata, Musakolan 4etan.
Emakumezkoak, Arrasate - Andraitz, igandea, Musakolan 12etan.

Pilota

Promoziozko Txapelketa, Antzuolan Olalde taldearen aurka, larunbatean arratsaldeko 5etan.

Eskubaloia

Seniorrak: Arrasate Kirolak 23 - Bizkor 27
Juniorrak: Zarautz 16 - Arrasate Kirolak 16
Jubenilak: Bidebieta 21 - Arrasate Kirolak 7
Kadeteak: Aloña Mendi 23 - Arrasate Kirolak 11

Hurrengo partiduak

Kadeteak: Iturripen, igandean goizeko 10.30etan, Bidebieta-aren aurka.
Jubenilak: Iturripen, igandean goizeko 12etan, Ordiziaren aurka.

Futbola

Hirugarren maila: Mondra 3 - Amurrio 0
Preferentea: Mercedes Benz 2 - San Andres 1
Emakumezkoak: Mondra 2 - Dunboa 2
Ohorezko maila: Mondra 2 - Beasain 0
Lehen mailako jubnilak: San Inazio 0 - San Andres 2
Bigarren mailako jubnilak: Zestoa 1 - Arrasate 0
Kadeteak: Lazkao 1 - Arrasate 4
Haurrak: Arrasate 4 - UDA 2
Arrasate 9 - UDA 0

Hurrengo partiduak

Emakumezkoak: Mondra - Alde Zaharra, igandea Atxabalpen 12etan.
Ohorezko liga: Mondra - Idiazabal, igandea Atxabalpen 15.45etan.
Jubenilak: Lehen maila, San Andres - San Viator, igandea Atxabalpen 10etan.
Bigarren maila, Arrasate - Zumaiako, larunbata Atxabalpen 15.45etan.
Kadeteak: Arrasate - Elgoibar, larunbata Atxabalpen 10.30etan.

Rugbya

Kadeteak: Arrasate 24 - Getxo 0
Jubenilak: Kakarraldo 40 - Arrasate 17
Seniorrak: Zarautz 15 - Arrasate 13

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Arrasate - Bilbo, larunbata Garagartzan arratsaldeko 4etan.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK




77 05 65

Hezkuntz sistema berria

Irakaskutzaren antolakuntza sistema aldatzen hasi da "Ley de Ordenación General del Sistema Educativo" (L.O.G.S.E.) delakoa erabiltzen hasi denean. Ordezkapena ikasturtez ikasturte egingo da, 2000. urtean osatu arte. Bien bitartean, gure inguruko ikastetxe askotan ezartzen hasi da aurreratuta bada ere, Irakuskuntza Ertainen Erreforma (R.E.M.) hasi zenetik. Sistema berria honela geratuko da gauzatuta:

- **Haur hezkuntza:** 6 urtetara artekoa hartzen du eta bi ziklotan banatuta dago (hiru urtera arte, eta hirutik seira).
- **Lehen hezkuntza:** 6 urtetik 12ra artekoa hartzen du. Bi ziklotan banatzen da, bi ikasturte horietako bakoitzak.
- **Batxilergoa** (2 ikasturte): honako modalitateok hartzen ditu:



- Arteak
- Natur zientziak eta osasun zientziak
- Humanitateak eta gizarte-zientziak
- Tecnologia.

- **Modulu bidezko Lanbide Heziketa:**
Ertaina (2. maila)-
D.B.H.ren ondoren eta
Goikoa (3. maila) -
Batxilergoaren ondoren.

Hurrengo baten azalduko ditugu zergatiak eta lortu nahi dituen helburu nagusiak.

JULIAN SERRANO

HEZIBIDEKO IDAZKARI
TEKNIKOA

(Erredakzioan itzulia)



• ARAMAIOKO UDALA •

OHAR GARRANTZITSUA

Honen bidez, Aramaioko Ibarrik Santa Ageda bidea, A-2620 (L 625) bidea, erabiltzen duzuenoi jakinarazten zaizue, datorren **larunbata eta igandean, urtarrilak 23 eta 24, goizeko 8.15etatik eguerdiko 1etara eta arratsaldeko 2etatik 6etara**, Aramaioko Untzila auzora dihoan "Kataia" deritzaion kurtzetik "Bolintxo" bihurtunera (31,00 eta 31,50 kilometroen artean) bide zatia moztu egingo dela.

Gazteiza edo Aramaioko Ibarra joateko, "Kataia"- Untzila-Zabola-Azkoaga-Ibarra bidea erabil dezakezue.

Barka eragozpenak.

Aramaion, 1993ko urtarrilaren 20an.

Alkatea
Jose Ramon Uribe Uriarte jauna

Gipuzkoa:
bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián



Santa Barbarako magalean dago jatorrizko Arrasate.

Jatorriak (II)

1262ko irailaren 4ean hasi zen legeak egiten ere Arrasate, Alfontso X.ak emandako pribilegioaren bitartez, eta horrela, Arrasateko Udalerriaren barruan ateratako mineralak herrian bertan lantzea agindu zen. Lan horretarako behar zen ikatza ateratzeko, zuhaitzak botatzeko baimena eman zen. Errege horrek berak, 1280an Leintz bailarako baso komunaletara eskubidea zabaltzea eman zien mondragoei.

Mondragoe sortu aurreko herrixkaren izakera eta ezaugarriez daturik ez dagoen arren, badakigu garai hartan heritik kanpo geratu ziren auzo batzuk geroago Mondragoeko auzo izatea

eskatu ziotela erregeri. 1353ko otsailaren 17an jaso zen San Juan Bataiatzailearen parrokiaren bategite horren akta. Udala, Uribarri, Garagartza eta Gesalibar auzoak sartu ziren. Auzo horietako baserri zerrenda luze batek Mondragoen sartzea eskatu zioten Erregeri, "cansados de vivir en servidumbre oscura e muy desaguisada con los males e furtos e daños e robos que recibian de los ricos homes... e escuderos poderosos que viven e entran en dicha comarca" zioen idatzi baten bidez.

Non dago Arrasate?

Tradizioak historikoki mantendu duenez, Arrasate izeneko lekuak Leintz eta

Ugaran bailarek bat egiten duten lekuan egon behar zuen, bietako ate bezala (Arrasate), Santa Barbarako mendebaldeko magalean. Santa Barbara izena berri samarra da, 1653an Barbara Abarrategi y Orok Goiko-Obaluko ermita eraiki zutenetik dator eta.

Arrasate izeneko leku horretako bidagurutzean, izen bereko irin eta ogi fabrikaren alboan, XIX. mendearen amaiera arte, gurutze bat zegoen harrizko zutabe baten gainean. Tradizioak dioenez, Alfontso VIII.ak 1200 urtean Gipuzkoa hartu zueneko lekuaren oroigarri da gurutze hori, probintziaren ordenamendua egin zueneko.

SUTONDOAN

MIKOLASEN ASTOA ETA OSINALDEKO JAXANTON (eta IV)

Joxantonen aitak tontotik ez zeukan ulerik ere eta aspaldi igarria zeukan bere semeari zer gertatzen zitzaien. Esan zion nola bera trozuetara joan zenean bere hutsunea betetzeko Joxpiñaxiri deitu ziola neskame bezala eta hurrengo urterako konpromisorik ba ote zekarren. Halabeharrez berriz itzuli behar bazuen neska-mearekin jarraitu beharko zuela eta bestela berriz, berea ordainduta Joxpiñaxi bialdu egin beharko zutela.

Orduan semeak esan zion aitari:

— Ez aita, zuri gaizki ez baderitzazu behintzat, ez naiz gehiago trozuetara joango eta Joxpiñaxirekin ez konduta, hementxe hirurok bake santuan biziko gara.

Aitak ontzat hartu zuen semearen eskaria eta halaxe egin zuten eta ...

Jainkuak osasuna badie ematen guraso izango al dira halakoren baten.

(Amaiera)


ARREGITAR TIBURTZIO

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

mokasin
Zapatak eta osagarriak
Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

.....
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA
.....
J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

BAZAR TOKI ON



ortillo maisua eta bere ikasleak dira, kalistroetan ateratako erretratatuan, 1931-2 inguruan edo. Beheko lerroan ezkerretik hasita, **Jabier Otadui, Pedregón, Jesus Bolinaga, Rafael Amozarrain, Luis Abarrategi, Joxe Aranburu eta Jose Luis Martinez.**

Bigarren lerroan ezkerretik, **Joxe Ramon Aranzabal, Jesus Bedia, Ramon Bolinaga, Lorenzo Escudero, Uranga, Arregi, Jose Luis Isasa,**

Luis Murguzur, Joxe Errasti, Beitia, Imanol Uriarte, Luis Etxeberria eta Juanito Iriarte.

Hirugarren lerroan, Ospitaleko **Migel, Mon-dragon "Marruko", Lorenzo Agirregomezkorta, Gonzalo Etxeberria, Imanol Arizaga, Martin Arregi, Bixente Nafarrate, Xanti Etxeberria "Zurdo", Juan Oruna, Xanti Arana eta Epi Garcia.**

Laugarren iladan **Faustino Elkoro, Escu-**

dero, Garmendia, Joxe Arana, Pedro Guridi, Julio Laspiur, Felix Etxebarria, Miguel Laspiur, Juldain, Jaime Zubialde eta Julio Galar-ta.

Gorengo iladan, **Juan Ayastuy, Antonio Ansuategi, Pedro Zubizarreta, Baletin Olabe, Amador Portillo, Gregorio Azkoaga, Joxe Ayala, Bitoriano Bedia, Jose Mari Iturbe, Jesus Otadui, Goitia eta Tadeo Azkarate.**



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- Bilbo ondoan ikasleen pisu baten leku bat behar dut. Dei egin 76 38 73 tfnora. Eguerdiko 12.30etatik 13.30etara. Felix.
- Etxebizitza salgia Olarte kalean. Tfnoa: (947) 27 01 00.
- 70m²ko etxebizitza alokagai Eskoriatzan oso aproposa bulego edo kontsultarako. Tfnoa: 71 43 28.

Lana

- Etxeetara joanda EGBko klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- Emakume esperientziaduna aste bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Dei egin 8etatik aurrera 77 04 60 tfnora. Margarita.
- OHO, LH eta kontabilitateko klase partikularrak emango nituzke, goiz eta arratsalde. Tfnoa: 79 55 28. Itxaso.
- Klinika laguntzaile titulua duen neska batek umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen du bere burua. Tfnoa: 79 37 28.
- Latinezko klase partikularrak behar ditut. Dei egin 79 34 58 tfnora. Iban.
- REM 1. kurtsoko lenguaiazko klase partikularrak behar ditut. Tfnoa: 77 08 43. Nieves.
- Frantseseko klaseak behr ditut. Tfnoa: 79 31 25.

Salerosketak

- la erabili barik dagoen Game Boy-a salgai Tetris jokuarekin. Prezioa: 11.000 PTA. Tfnoa: 71 47 70. Xabier.
- Nikon markako 35-70 mmko objetibo autofokusa salgai. Bi urte bakarrik ditu. Prezioa: 18.000 PTA. Dei egin ilunkeratan 77 04 44 tfnora. Karmelo.
- Salgai Taunus Tropicano10-F berogailu-hai-zagailua.
 - Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.
 - PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak). Prezioa: 9.000 PTA.
 - "Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina. Guzti hauetarako dei egin 77 06 90 tfnora. Kepa.
- Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai. Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gaineke (enzimera) su elektrikoa oparian doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.
- Vespa 200 TX-a salgai. SS-AH. Berri-barria. Dei egin eguerdiko 1etatik 2etara. Tfnoa: 79 76 84.
- Seat Ibiza 1.2 CLX salgai. SS-AB. 85.000 km. Prezioa: 425.000 PTA.. Dei egin 8etatik aurrera.
- Zibro kamin R-86 berogailu japoniarra salgai bere osagarri guztiekin. Tfnoa: 79 13 75.

Denetarik

- Santa Barbaran koker txakur bat galdu zitzaidan, topatu baduzu dei egin tfnora honetara: 77 03 69. Arratsaldeko 7etatik 9etara.
- "Nati" izena jartzen duen pultsera bat galdu nuen hilaren 11n edo 12an. Topatu baduzu, dei egin mesedez 79 21 03 tfnora. Saritu egingo da. Nati Baskaran.
- Monterron parke aurrealdean larruzko esku-larruak galdu ziren. Norbaitek aurkitzen baditu deitu dezala telefono honetara: 79 29 50.
- Propaganda banatzen da Arrasaten, seriotasunez eta garantia osoz. Tfnoa: 79 37 68.
- Belarritakoa galdu nuen Iguatorio Mediko eta Kuku denda artean. Bateron batek topatu badu, dei egin dezala 79 94 14 tfnora.
- Abenduaren 19an lentilak galdu zitzaizkidan kaxa eta guzti Kiroldegi inguruan. Aurkitu dituenak deitu dezala honako telefonora: 79 25 15. Maite Aperribai.
- Errege bezperan forro polar urdin bat galdu nuen Iturripen. *Joanes* izena jartzen du. Tfnoa: 79 58 99.
- Erretratuak, paisiak etab. egiten dira oleoz. Oso ekonomikoak. Informaziorako jo Monterron pareko Uxarte goxodendara edo 79 83 76 tfnora. deitu.
- Loro baserrian neurri guztietako 10 urteko plataneroak erregalatzten dira. Joan eta atera egin beharko duzu, atxurra ere badaukagu. Dei egin 79 17 88 tfnora.

Aste Gazte

Gazte Kooperatzaileak

• Programan honen IV. edizioan esku hartzeko baldintzak: 18 - 28 urte, arlo konkretu batzutan lizentziatu edo diplomatua (titulua 89tik aurrerakoa). Helburua: Hegoamerikako herrialdeetan zenbait garatze-programatan lan egitea. Epea: otsailak 11.

Bekak

• 93-94 ikasturtean Juan March Institutoko Giza

Zientzietako Zentruan ikasteko bekak. Ingelesa menperatzen duten goi mailako tituludun nahiz karrerako azken ikasturteko ikasleei zuzenduak. Dirulaguntza: hileko 120.000 PTA. Epea: martxoak 1.

Kroaziarako boluntarioak

• Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik astero-astero 5 lagun bidaltzen dira Kroaziara. Baldintzak: in-

gelesa menperatu eta umee-kin esperientziaduna izatea.

Ikastaroak

• Euskal Dantza Ikastaroa, 10-14 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua. Lore Gazteak taldearen eskutik. Ostegunetan, 6.30etatik 8etara. Otsailetik Ekainera bitartean. Inskripzioak: Gazteentzako Informazio Bulegoan. Plaza mugatuak.

Gazte-txartela

• 91-92 txartelaren baliotasun epea martxorarte luzatu da.

**"Haztea, bestee-
gandik bereizten
hastea da, jakina,
distantzia horretaz
jabetu eta onar-
tzea".**

**C. MARTIN GAITE
"NUBOSIDAD VARIABLE"**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

BERTSOAK

Santa Barbara

1
Zarugaldetik jira biraka dago bide bat egina duten keriza eskeni nahian zuhaitz talde bat apaina txukun jarrita aulki batzuek aurrekaldean jardina paregabeko atxen lekua da Santa Barbara gaina.

2
Aiton amonek ta haurreekin ama nekatu gabe joan leizke elbarri eta gaixoak ere berdin hoiiek bezalaxe gazteok ere joan ta jolastu baina ezer apurtzeke tontor polit hau geurea da eta zaintzen saiatu gintezke.


AGARRE



Z E R N A H I A G O ?

Juan Jose Ruiz

ONCEko saltzailea



- **Zenbaki gustokoena?** 7an bukatzen diren zenbakiak, erosleek ere gehien eskatzen dituztenak dira.
- **Ze egunetan saltzen da gehien?** Ostiraletan, sariak ere handiagoak izaten dira eta.
- **Sari handiak banatu dituzu?** Bai, bi alditan 50 miloiko sariak banatu ditut.
- **Eta zuk jaso duzu zerbait?** Ez, zorte txarra izan dut.
- **Zenbat lagun zaudete ONCEko kupoiak saltzen Arrasaten?** Guztira 8 izango gara.
- **Zer dago txarto Arrasaten?** Urte asko daramat hemen bizi izaten eta ez dut ezer txarto somatu.
- **Lotoa botatzen duzu?** Bai, baina ostegunetan bakarrik.
- **Eguneroko erosleak dituzu?** Bai, egunero 300 pertsonak edo erosten didate.
- **Siestarik egiten duzu?** Denbora dudanean bakarrik.
- **Erropa zuk erosten duzu?** Bai baina gutxi, ez zait gustatzen erosketak egitea.
- **Ezkonduta zaude?** Bai, baina ez dut seme-alabarik.
- **Elizara bai?** Bai, atzo bertan entierro baten egon nintzen.
- **Zure hobbyak?** Futbolean jokatzeta eta pasiatzeta.
- **Euskaraz ala erdaraz egiten duzu normalean?** Segun bezeroa nor den.
- **Emakumeek ala gizonezkoek erosten dute gehien?** Emakumeek beharbada.
- **Zer zenbaki zapatetan?** 40a.
- **Musika entzutea gustatzen zaizu?** Ez gehiegi, euskal taldeena bakarrik.
- **Kalera irtetea gustatzen?** Bai, baina ez dut asko irteten.



TROPIKAL FAUNA

NARRASTIAK BIZI-BIZIRIK

Erakusketa: 38 espezie: narrastiak, hamarratzak, pirañak, intsektuak...

ARRASATEN, asteartea hilak 19an hasi eta igandea 24ra arte.

Arratsaldeko 5etatik 9etara

Ordutegia: Larunbat eta

igandean 12-14 eta arratsaldez 5-9

GIPUZKOAN LEHEN ALDIZ!

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Jose Inazio Agirre

Goikobaluren etapa berria

Hiru urte eta erdian Goikobaluko lehendakari izan den gizon honek bere postua utziko du datorren astean burutuko den urteko Batzar Orokorrean.

— Nola joan dira hiru urte eta erdi hauek?

— Beno, Goikobalu abesbatza sortu zenetik egon naiz lehendakaritzan, eta egia esan, aldaketa batzuk igarri dira, gehiengotan onera aldatzeko balio digutenak. Zazpi-zortzi lagun bildu ginen hasieran eta asmoa kantatzea zen soilik, guretzat hobya zelako. Baina elkarte eta abesbatza bezala funtzioatzeko eta profesionaltasun maila lortzeko beste zerbait ere behar zela konturatu ginen. Eta arlo horretan gure zuzendariak Jose Inazio Ruiz de Alegriak asko lagundu digu.

— Zergatik uzten duzu lehendakaritza?

— Hiru urte eta erdi hauetan abesbatzaren ardura guztia izan ondoren, horretarako balio duen jende berria dagoela konturatu naiz, horregatik izen zerrenda berria kaleratuko dugu eta ea zein izaten den aukeratua Batzar Orokorrean.



— Zein izango da lehendakari berriaren lana?

— Ez du aparteko lanik izango, baina orain arte bezala, taldeko ekintzak, diru kontuak eta beste-lakoak koordinatzea izango da bere lan inportanteena. Horretaz gain, beste abesbatza eta beste talde batzuekin harramanak mantentzea eta hori ere maila handi batean bere esku egongo da.

— 93ra begira zelako proiektuak dituzue?

— Ez dakit, asko daude. Batzuk martxan daude jadanik baina beste batzuk oraindik zehaztu gabe. Alde batetik, orkestra sinfonikoa sortzeko asmoa dugu baina hori oso zaila izango denez, aurten piano edo organo batekin

abestea lortzen badugu, nahiko izango da. Maila honetan Arturo Goikoetxea, Gazteizko Santiago Ospitaleko medikuaren laguntza lortu nahi dugu. Momentuz, prest agertu da ahalik eta laguntza gehien emateko. Bestalde, Euskal Herriko herri batzutan eta kanpokoetan kantatzeko asmoa dugu. Esatebaterako, Palentzian, Andaluzian... Baina esan bezala, azken hauek proiektuak dira oraindik.

— Jende berria erakaritzeko kanpaina berezia jarri duzue martxan?

— Bai, kantore asko eta onak ditugu baina astean zehar asko ikasten daudenez, ez gara nahikoak egoten. Horregatik, abesbatza berritzeko beharrean aurkitu gara. Azken urte honetan, 8-10 soprano joan dira kanpora ikastera eta taldearen barruan eta kantatzeko orduan asko igartzen da hori. Hori bai, solfeo piska bat jakitea eskatuko zaie kantore berriei, kantu berriak eta lehengoak ere ulertu eta irakurtzen jakiteko. Beste kontu bat da, abesten ikastea baina horretarako oinarritzko ezagupenak behar dira.

LABURRAK

“Agur irudiari” erakusketa zabalik

“Ikusten ikastea” erakusketaren barruan, “Agur irudiari” izeneko zabalik dago Monterronen pasa den asteazkenetik. Datorren otsailaren 7 arte egongo da zabalik. Gogora dezagun honako hau “Agur irudiari” zikloko hiru-garrena eta azkena dela.

Santamasetako argazkien erakusketa

Santamasetako argazki lehiaketako sariak banatu ondoren lan guztiekin erakusketa bat zabaldu zen pasa den ostiralean. Bertan, 12 argazkilarien lanak ikus daitezke, horietatik bost koloretan. Harresi Aretoan datorren 24. iganderarte duzue zabalik.

Dantza ikastaroa

Pasa den urtean bezala. Udaleko Gazte Zerbitzuak eta Lore gazteak dantza ikastaroa antolatu dute. Datorren otsailean martxan jarriko da eta ekainerarte luzatuko. 10-14 urteko gaztetxoek har dezakete parte. Ostegunetan arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara izango dira klaseak eta arin arin, fandangoa eta beste dantza batzuk ikasi ahal izango dira. Izenak emateko zuzendu lehenbaitlehen Gazte Zerbitzura edo telefono honetara deitu: 77 00 65.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

ERAIKUNTZAK
Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

SALBERRI
HARATEGIA-URDAITEGIA
Azoka Plaza, 22.postua
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE

ASTRONOMIA

MUNDU BOROBILA

XX. mendean munduratu garen gehienok, badakigu lurra pilota handi bat dela eta Australiar dauden kanguruak nahiz eta gurekiko hankaz gora egon, ez direla inola eta inora jausten.

Baina ideia hauek ez dira betidanik gizakien buruan egon.

Historian zehar, zibilizazio guztiek izan dituzte ortzeari buruzko beren interpretazio eta mitotok. Egipziarrek pentsatzen zuten Lurra dordoka erraldoi baten gainean zegoela; greziatarrek zerua mendi altuenetatik metro batzuetara bakarrik zegoela, eta zerrenda bukaezina da.

Hala ere, 2.200 urte inguru dela greziar jakintsu bat konturatu zen, ekainak 21 eta eguerdian puntu puntuan Sienako hirian, monolitoek ez zutela itzalik proiektatzen lurrian, baina egun eta ordu berean Alexandrian aldiz. Honela konturatu zen Lurrak esferikoa izan behar zela eta ez laua, bere zirkunferentziaren luzera 40.000 kilometro karrikatukoa zela kalkulatu.

Esklabuen bizimodu txarrari esker, nagusiek bazeukaten denborarik zibilizazioa ilunpetik ateratzeko.

ERNEST BORN



Kultur Bideetan programaren barruan 1500 ekitaldi baino gehiago burutu dira.

Kultur Bideetan programa amaitutzat eman dute

Kultur Bideetan programa Euskadiko Kutzak eta Jaurlaritzako Kultura Sailak 1987. urtetik bultzatu duten, dirukontuak medio, amaitutzat eman da. Orain arte, kultur ekintzen programaren karga ekonomikoa aurrez aipatutako bi erakundeen artean eraman dute, baina aurten Jaurlaritzako Kultura Sailak ez du aurrekonturik jarri kultur-ekintzetarako eta, Euskadiko Kutzak ez du nahi izan programaren aurrekontu osoa bere gain hartzerik. Jaurlaritzak kultur ekintzetarako dirurik ez jartzean, kultur-ekintzen difusioa Diputazioen esku utzi du.

Dena dela, Kultur Bidee-

tan programa bukatzen bada ere, **Kultur Bideetan** taldea ez da oraingoz desegingo eta bere etorkizuna apirila aldera erabakiko da, Jaurlaritzarekin bildu eta gero. **Kultur Bideetan** programako arduradunak, Enrike Forondak, zaila ikusten du Diputazioek horrelako mugimendu bat irauarazi nahi izatea "Diputazio bakoitzak bere zirkuituak dauzka eta Kultur Bideetan programaren antzeko ezaugarriak dituen beste mugimenduren bat sortzea ez da erraza izango. **Kultur Bideetan** programaren ezaugarri nagusienerikoa lurraldetasuna izango litzateke, Komunitate Autonomoko hiru probintziez

gain, Nafarroa eta Iparraldea batzen baitzituen. Maila berean, izaera bateratzaileko programa izan dela esango nuke, probintzia guztietan kriterio berberekin mugitu da eta. **Kultur Bideetan** programari, azkenik, erreguladore funtzioa ere erantsiko nioke, euskal kulturaren alorren bat ahul samar ikusiz gero, alor hori indartzera jotzen zuen eta".

Beraz *Ehun metro, Zergatik Panpox?* eta *Hamaseigarrenean aidanez* filmeen emanaldien bidez hasi zen programari, 1500 ekitaldi inguru burututa eta bost urteren ondoren, amaiera iritsi zaio.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

PEUGEOT-TALBOT
Salmenta eta
zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE


Denbora Pasa

· AIPUA ·

*"Eman zure erabakia,
sekula ere ez arrazoirik;
erabakia zuzena izan
daiteke, arrazoiak,
seguruenik okerrak"*

William Masfield

· JEROGLIFIKOA ·



Baztango herria

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13				14	
15			16		17		18
19				20			
21							

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Zaldibarko Futbito Txapelketako ekipoa. 9. Zitzu. 10. Errepikatuz, lelo. 11. Kataluniako ibaia. 12. (Ald.) Emakume izena. 15. Bena. 17. Animalientzat jangai estimagarria. 19. Arnasestu. 21. Borondatezko.

Bertikalak 1. Eza. 2. Harpidedun. 3. Neu. 4. Zenbakien zerrendan lehena. Galant. 6. Bizi garen planeta. 7. Ez eme. 8. Putre. 13. (Ald.) Zalea. 14. Burdina lortzeko tokiak. 16. Nazio Batuen Erakundea. 17. (Ald.) Berba egin eta jateko zulo. 18. Denak. 20. Erbioa.

· HOROSKOPOA ·

Aries Beherapetan erositako jertse horrek ez dizu batere ona irtengo.

Taurus Mutil-lagun baten bila zabiltzala? Egiozu bisita auzokideari.

Gemini Errealak jokalaria onak behar ditu. Hau da zure aukera!

Cancer Ez amari gezurrik esan, gezurrak hanka motza du eta.

Leo Bide horretatik jarraitzen baduzu gaizki bukatuko duzu.

Virgo Moztu ezazu bibote hori, Hussein-tzat hartuko zaituzte eta.

Libra Nasatik deituko zaituztelakoan? Froga horiek faltsuak dira.

Scorpio Kabiru hadi fraketan, mutil!

Sagitaris Aste honetan zure suerteko zenbakia izango da 13-a

Capricorn Arrasate Presseko horoskopoiei kasu egingez? Hi oraindik haundi egingo haiz!

Aquarius Asteburu honetan denak izango dituzu zure kontra.

Piscis Krisiaren ondorio gogorrenak zuek jasoko dituzu.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

ITZIAR BARTOLOMEREN GOMENDIOA



Zigiluen kolekzioa egitea gomendatzen digu Itziarrek, jendea horretara animatu nahi luke. Berari aitak hasi zion albuma, eta dituen sei luak ere aitak ekarriak dira. Erabili-tako sei luak biltzea gomendatuko luke, besteak erostea garesti ateratzen dela eta. "Baina hamar urtean sei luak lau aldiz gehiago balio izaten dute". Sobretik nola kendu? "sobre zatia ur berotan sartu eta ateratakoan berez askatzen da sei luak. Lehortzen utzi eta liburuén barruan lisatu besterik ez dago. Gero albumean jarri".


PROGRAMAZIOA



- 24 Igandea**
8.30 Monterock
9.00 Mondragol
- 25 Astelehena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondragol
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea: Dirty Dancing
- 26 Asteartea**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATB PUB
10.00 Asteko Zinea: Dirty Dancing
- 27 Asteazkena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATB PUB
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Pareak Jokuan
10.00 Asteko Zinea: Dirty Dancing
- 28 Osteguna**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Pareak Jokuan
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATBketan
10.00 Asteko Zinea: Dirty Dancing
- 29 Ostirala**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATBketan
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Monterock
10.00 Asteko Zinea: Dirty Dancing

KOMIKIA

Dagonean bonbon, ez dagonean hor konpon.




SOLUZIOAK

Almadoz.
JEROGILIFIKOA
Oha. 18. Oro. 20. Er.
Sat. 13. Aitok. 14. Oiak. 16. Nbe. 17.
3. Ni. 4. Bar. 5. Eder. 6. Lur. 7. Ar. 8.
Bertikalak 1. Gabezia. 2. Abonatu.
Aukerako.
15. Zain. 17. Oio. 19. Iobehar. 21.
Abiadura. 10. Bo. 11. Ter. 12. Ena.
Horizontalak 1. Gabelas. 9.
GURUTZEGRAMA

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

NAROKI

Urrezko bitxiak


NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak,

Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47

JEITSI BEGIAK PREZIORAINO ETA EGIN IRRIBARRE.



Renault 21 Driver bezalako auto bat bakarrik da gai hain gutxiren truke hainbeste emateko.

95. C. V. katalizatzailea. Kristal tindatuak. Aurrekaldeko leihoak jasotzekoa elektronikoa. Irratikaseta. Aurreko segurtasun-gerrikoak alturan erregulagarriak. Eta aire girotua eta direkzio lagundua aukeratu.

1.770.000 PTA bakarrik

RENAULT 21 DRIVER

BERRIA



ARGAZKIARENTZAT ETA ZURETZAT MARKORIK ONENA:

Promoziodun prezioa. Garraioa eta zerga guztiak barne Penintsulan eta Balearetan, urtarrilaren 31 arte stockeko ibilgailuentzat. Beste eskaintza batzuekin ez da bateragarria.

MECA, S.A.

**Arrasateko
banatzailea**